

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aduna



Aurkibidea

Udalerria: Aduna

Sarrera



Tolosaldea eskualdean kokaturik dago. Oriako harana nagusi duen muino batean kokatzen da. Adunarekin muga egiten duten herriak honakoak dira: Zizurkil, ipar-mendebalde eta mendebaldetik; Billabona, hegoalde; eta Andoain, ekialde eta ipar-ekialde. Herriaren erdialdean herriko biztanle guztien %40 baino ez da bizi. Beste auzoak Elbarrena eta Goiburu dira, lehenengoa herritik beherago eta bigarrena gorago kokaturik. Nekazaria da batez ere Aduna, baina Oria ibaiaren ertzean dozena bat enpresa nagusitzen dira. Adunan entzuten den hizkuntza bakarra euskara da; hori dela-eta, Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta, UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Beterrikoa.

Argazkia: Joxemai

- **Biztanleak:** 452
- **Euskaldunak:** %82,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **99**
- Transkribatutakoak: **31**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **99**

Proiektuak

- Beterriko kantak
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Mari Karmen Aburuza

Joxe Aburuza Etxeberria (1936)



Joxe Adunako Lardi auzoan jaio zen, Larditxiki baserrian. Ama bertakoa zuen, eta aita, berriz, Asteasukoa. Larditxiki, lurrez Aduna bada ere, distantzia bera dago baserritik Adunako plazara zein Andoaingo Sorabilla auzora. Adunarako bidea, aldiz, aldapatsuagoa da, eta Larditxikiko senideek joera handiagoa izan dute Sorabillarako, Adunarako baino. Izan ere, mezara bertara joan ohi ziren igandetan, hasiera batean Adunara joan izan baziren ere. Eskolara ere, Sorabillan hasi zen Joxe, Adunako maisuak ospe txarra zuela-eta. Ondoren, Andoaingo La Sallen ibili zen. Hamazazpi urterekin, Andoainen hasi zen lanen, Algodoneran. Gero arotz lanetan aritu zen Donostian bi urtez; eta, azkenik, Michelinen hasi zen lanean, Lasarten. Handik hartu zuen erretiroa.

Arantxa Aburuza Otegi (1943)



Adunan jaioa, 1943an. Zortzi senidetan bigarrena. Gurasoak ere Adunakoak zituen. Betidanik gustatu izan zitzaion jostea eta izebei laguntzen, josten aritu zen ezkondu artean. Senarra Segurakoa du eta hara ezkondu zen. Donostiako San Ignacio ikastetxeko ikasleek egin zioten elkarrizketa.

Joxepa Elizondo Ormaetxea (1933)



Joxepa Adunako Ulanberro baserrian jaio zen. Aita jaiotetxe berekoa zuen, eta ama ere Adunarra. Alaba bakarra zen Joxepa, eta etxean lanerako gutxi izanik, beti zuten morroiren bat etxean, eta osaben laguntza ere bai. Gerra hasi zenean hiru urte besterik ez zituen arren, ondo gogoratzen du etxean soldaduak eduki zituztenekoa; leihotik aterata ametrailadora nola ikusten zuen. Gazterik ezkondu zen, hamazazpi urterekin. Geroztik, Ulanberron bizi izan da.

Maria Gorostidi Zubeldia (1931)



Adunan jaioa, Aizpea baserrian. Bidaniko Eztiola baserriko Manuel Iraolarekin ezkondu zenean Bidanira joan zen bizitzera. Adunako euskara darabil, baina Bidaniko euskararen eragin handiarekin.

Carmen Otegi Zabala (1930)



Adunako Olatza baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Adunako Altzarte baserrikoa. Sei senidetan bosgarrena, 30 urterekin ezkondu zen 'Gure etxea' tabernara. Geroztik tabernan aritu zen lanean, sukaldean gehienbat. Herriko jendea zerbitzatzeko urteak eman ditu, ermandadeen urteroko afariak prestatuz, Gabonetako bisigu-janak eskainiz... eta astean asteko bezeroak zerbitzatzuz.

Mateo Tejeria Zabala (1932)




Adunako "Torre" etxean jaioa, herriko plazan bertan. Baserriko lanetan beti izan du afizioa, eta gaztetan hasi zenetik, ez dio sekula utzi baserrian lan egiteari. Baina hori nahikoa ez, eta neguan basoko lanetan aritu izan da urte askoan. Gainera, herriko lur-emaleari anaia hil zitzaionean, honek ezin egingo zuela ba bere anaiarentzat zuloa, eta Mateori eskatu zion laguntza. Geroztik, herriko enterradore lanetan ere urte askoan ibili da Mateo, orain gutxira arte.

Rosario Tejeria Zabala (1930)




Torre baserrian jaioa, Adunako plazan. Aita bertakoa zuen (aitonak erosi zuen baserria), eta ama Adunako Garagarza baserrikoa. Morroi bat zuten eta aitona-amonak ere beraiekin bizi ziren. 11 senidetan bigarrena, Rosario umetatik aritu zen baserriko lanetan. Amak tratua saltzen zuen plazan. Gerra garaian baserria soldaduz beteta izan zuten. Gerraostean udaletxe azpiko eskolan ibili zen. 14 urterekin josten ikasten hasi zen, Villabonan. Jostungintzan aritu zen gero, lehenengo Villabonan erta gero Tolosan, sastreria batean. Villabonako Bibiano Arregirekin ezkondu zen, eta Villabonara joan zen bizitzera.

Ramon Zabala Mendizabal (1931-2012)



Berez sagardotegi ondoko "Garagartza" baserrian jaioa, Adunako Ramon Zabala Sagardotegiko semea da Ramon. Sagardotegiak, ordea, izena bere aitonaarena du. Izan ere, bera jaiotzerako, Ramonen familia Adunako bi sagardotegietako baten jabea zen. Txiki-txikitatik hasi zen lanean sagardogintzan, kupelak garbitzen... Orduko sagardotegiak, ordea, ez ziren bertatik soilik bizitzeko modukoak, eta etxean beti izan dute soroko lana eta ganadua. Ez da lan gutxi egindakoa, beraz, Ramon ere.

Maria Luisa Zabala Zubiarrain (1930)



Maria Luisa Adunako Garagartza baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Albizturko Olateaga baserrikoa. 12 senidetan bigarrena zen bera. Bera baino zaharragoak soroan lananean ari ziren bitartean, ume txikiak zaintzea izaten zen bere lana. Gerra ondorenean, sei urterekin eskolan hasi bazen ere, etxean nahiko lan izaten zela eta, sarri etxean gelditu behar izaten zuen. 14 urte zituela, 'Talleres Aduna'-n hasi zen lanean. Ondoren ezkondu egin zen, Adunan bertan, eta geroztik hantxe bizi da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Garai batean sagardoa nola saltzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/002
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:03:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Garai batean sagardoa egin ondoren kalean partitzen zuten. Barrika txikietan eramaten zituzten eta familiek erabili ahal izateko. Beranduago Ramonen aitona eta aitak Andoainen sagardotegia jarri zuten, kalean. Erosleak txarro edo botilarekin joaten ziren dendara sagardoa erostera. Gauean berriz lokalean bertan afaldu eta txiritik edaten zuten.

Transkripzioa

- Ta sagardua saldu, in itten zan hemen ta beste nunbaiten eman o...?
- Sagardua hemen in ta gero kalia partitzen zuen ordun.
- Adunan bertan?
- Aduna ta Andoain ta Billabona ta hoitan. Ta hemen ingurun ta kanpoa-ta're bai. Kanpoa, konparazioako, ze esango dizut nik, Lasarte aldea o, eskatzen zigun tokin.
- Ze, nola juten zian, zaldiz o zaldikin eo?
- Sagardua ordun jenealian jendiak etxetan, kaletarrak eta hoik, barrika txikik izaten zittuen, ta moztua ematen zitzaizen, "el mosto". Ta moztua eman ta han barrika txikik betetzen zitzaizken. Ta gero jendiak familin ta etxian eateko-ta gero barrikatatik izaten zittuen. Hoi uain dala, uain dala larogei urteko kontuk dia hoik. Ta gero, gero hortan zabiltzala, nere aitonak eta aitak Andoainen kalia jarri zuen sagardoteiya, bodega, upelateiya.
- Nun jarri zuen?
- Exkerraneko tabernak dauden hortan jarri zittuen. Ta gero uste askuan han ibiltzen zien. Nere izebak... ordun izaten zan danak etxetaa jendiak ematen zun txarruakin ta botillakin ta hola ematen zuen. Ta nere izeba

batek iya egun guztiya —kanillatik saldutzen omen zuen ordun, ta— kanillan onduan, hola, silla ttiki baten jarri, exeri, ta batek boltsan botillak zittula etorri, botilla bete, ta familiako eaman. Ta gero gabian, berriz, Bizkai aldian nagusi esaten ziyen, aitona ta gazte jendek etorri ta bertan janez, xiritikan, ean ikeragarri, ta gero etxea danak bersota jun.

1.2. Upelategiak

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/005
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:05:05. **Bukatu**: 00:07:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Leku askotan upelategiak zeuden. Andoainen 13 inguru kontatzen zituen bere aitak. Baserritarrek etxean egindako sagardoa hara eraman eta han saltzen zuten, bakoitzak berea. Jendeak botiletan hartzen zuen sagardoa, etxerako. Baina sagardotegian bertan ere edaten zen; batzuk afaltzera joanda eta beste kuadrilla batzuek "poteo" antzera.

Transkripzioa

- Ta gehien-gehiena hola saltzen zan? Sagardotegin bertan eanda baiño gehio izaten zan saltzen zana?
- Bai, baiño sagardotegitan'e asko ibiltzen zan. Ordun Donosti aldian'e, upelategik esaten zitzaion. Upelak zauden tokiyak du izena upelateiya; bodega ta hola ez da izaten, hoi danan izena da upelateiya. Zan, lehen.
- Donostin bat zeon?
- E?
- Ta Donostin...?
- Ask.
- Ask?
- Ta Andoaiñen bertan'e aitak, nere aitak, gero esaten zittun, haik sagardoteiya eukitzen zuenian, Andoaiñen bertan'e kalia harek hamahiru ta kontatzen zittun, batzuk gehixeo bestiak gutxixeo, hola.
- Hamahiru Andoaiñen bertan?
- Bai, kalia.
- Ze izaten zan, jendiak eukitzen zittun bertan bere upelak?
- Bai, jendiak, uain [sagardotegia] balitzake bezela, sagardozaliak in ta harea eaman ta han saldu. Nola jendiak etxetaa ematen baitzun, jendiak etxetaa emateako, ja!, botillakin ezin etorriko zian ba hemen baserría ta. Kalia uain tabernak balia bezelatsu izango zan.
- Ta ze izaten zan sagardotegi diferentetako sagardua bertan upelatan ta...?
- Uaingo estilua, bakoitzak bere sagardua itten zunak.
- Baiño upelategiya batena izaten zan? Ez zan izaten pertsona bat sagardotegitatik sagardua erosi ta bertan saltzen zuna gero.
- Ez, ez, ez, danak, danak... ordun danak basarritarrak gaiñea zittuen hoik, upelatei hoik. Beren etxetan sagarduak in, harea eman... Sagardu muztuan, e, muztuan. Muztua, badakizu, in berri horri esaten zaiyo muztua, gozo-gozua eoten dan horri.

- Galdetuko dizut nola itten dan.

- Bai. Ta hua hartu ta hua han upela bete ta gero han saltzen zittuen, batzuk txotxian, txiriñ o hor, ta beste batzuk lehen esan dizuten bezela, botillan. Ta beste bakarren batzuk enbotillatu ingo zittuen, baiño jenealian bestela.

- Ta hoi saltzen zana. Ta bertan eaten zan hua nola izaten zan normalen, afari baten bueltan o hola, afaltzen izango zan?

- Afaltzen'e bai, ta bestela uain baxoerdi eaten aitzen dian bezela jun ta ean ta. Danak, sagardotei guztik, pasatzen zien kuadillak'e bai. Uain nola ibiltzen dia xiriñ, o zean, baxoerdik eaten? ordun sagardoteitan hola ibiltzen omen zian.

- A, beira. Ta ze izaten zan mutil gazte kuadrilla normalian?

- Danetati izango zan. [Iñularretan-ta] danetati izango zan. Ta sagardo ona, upel ona, nun irikitzen zan o nun tokatzen zan, zein sagardoteitan, usaiya hartzen bazuen, danak harea jun, hua hustu arteko onik ez omen zan izaten. Ona nun zeon. Batebatek aitzen bazuen "upela ona uain hasi die han".

1.3. Sagardoa kargatan neurtzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/006
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:07:57. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Upelategietan sagardoa "karga"tan neurtzen zuten; karga bat 150 litro ziren. Hogeikargako upelak ere izaten ziren. Sagardotegi batzuetan bestetan baino upela gehiago izaten ziren. Artoa eta babarruna neurtzeko, berriz, anega, lakaria eta gaitzerua.

Transkripzioa

- Sagardoteitan. Ta gure aitta zanak esaten zun ordun, gaiñea, ez zan litroka-ta ez zan izaten, kargako izaten zan.

- Karga?

- Bai. Upel batek, "zenbat upelak?" eta "hoinbeste karga", ta kargak ehun ta berrogeita hamar litro. Noski, lehen nola izaten zan? Artuakin ta're anea ta lakaiya ta hola izaten zan. Ta gaitzeruba-ta izaten zian.

- Gaitzerua?

- Bai.

- Hoi zer zan?

- Artuan neurriya, ta... artua ta babarrunan neurriya.

- Ta kargak, zenbat kargako upelak izaten zian ?

- Ba, in zazu kontu, hogeikargakuak eta, haundiguak'e bai ta... txikiguak en general.

- Ta zenbat upel o hola izaten zian sagardotegi bakoitzian?

- Uain bezela danetati. Batzutan bost o sei igual izango zian ta beste batzutan hamabost igual izango zian ta. Nik hala entzuten nun hoi, hoi nik neonek ez nittun ikusi. Beno, hola ikusi nittun azkeneko bakar batzuk.

1.4. Sagardoa nola egiten zuten 1

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:09:56. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagardoa nola egiten zuten kontatzen digu. Aurrena sagarrak ganbaran edukitzen zituzten biguntzeko, baina usteltzen utzi gabe. Gero, dolarean jartzen zuten, eta bertan eskuz estutzen zuten. Prentsa garai batean egurrezkoa izaten zen, eta, ondoren, burdinez egindakoa.

Transkripzioa

- Ta sagardua, uain ai gea [sagardua...], baiño nola itten dan o nola... zuek garai hartan nola itten zenduen, zu gazte ziñala ta?
- Ba, ni gaztia nitzala ta aurreagotikan hasita, uain beste... ordun'e, ordun'e sagardua ein ahalak inda izaten zan, ta uain'e... uain, noski, uain makineria haundigoak daude ta, azkarrago atea ta hoixe.
- Baiño hoi, kontu hoiyek ez ditut jakin nahi, hoiyek, makinarianak eta. Zuek lehen nola, nola iten zenuen, ze prozesu izaten zun sagarrak sagardo bihurtu arte
- Sagarra kanpotik ekarri ta, jenealian, sagarra gogor xamarra balin bazan, ganbaran eukitzen zuen, pixkat beratzen, zortzi bat egun o hola, ateatzen errexagua izaten zalako, baiño usteldu gabe. Ta kanpotikan'e sagarrak etarrita. Ta askotan urdun'e sagar gogor xamarra izaten zan ta sagar gogor xamarra balin bazan, ordun'e prensa haundik bazien, baiño sagar gogorrai sagardua ateatzen izaten da oso zailla. Ta, gaiñea, bihar bezela lehen ez zitzaion atetasen. Uain, denbora askuan tolarian eukitzen bazendun bai, baiño tolarian'e denbora askuan patsa euki ezkeroz, egualdi beruakin behintzat alperrik galdu itten zan sagardua, mindu itten zan. Behin tolarian jotzen zanian, gure etxian bi egun gehiyena izaten zittun, bi egunian fuera patsa.
- Ordun, ontzen euki pixkat ganbaran?
- Bai, ahal zala bai. Gero, usteldu gabe e, usteldu gabe.
- Argi ibili behar.
- Bai, argi ibili behar.
- Ta gero noa ematen zan sagardua?
- Sagardua hua jutten zan, tolaria bea zorrotan o mangakin hartu ta upelea, o barrika, o horra.
- Baiño tolaren ze iten zan euki ta...
- Tolarian estutu itten zendun.
- Eskuz iten zenuen hoi?
- Bai.
- Nola izaten zan?
- Hoi izaten zan, eskun balenkakin, nik gero aurren-aurren izautu nun hola balenkakin estutzen-
- Bueltan-bueltan o...?
- Ez, atzea ta aurea. Bai. Hua're eskuzkua zan, baiño prensa oso ona zan, bi launek ikeragarri estutzen zuena prensa haundiya zan, oso ona. Uaindikan prensa gure etxian dakat.

- Ze, ze materialezkua o zer zan?

- A, hua burnizkua. [...] bea ardatza burnizkua. Ta lehen-lehen egurrezkuak izaten omen zian ardatzak, baiño auskalo, uain dala hirurehun urte o izango zian. Ta ardatz harek, ardatz harek [gerokuak] barrun izaten zun plomua. Plomua ez, zea izaten zun, kobria, zea, harin kontra, indar gehiyo itteko. Ta gero azkena, azken aldea, azkena baiño lehen gero motorrakin estutzen zala zien.

- Baiño ez zeon hemen ingurun hola bueltan-bueltan estutzen...?

- Ez, oso bueltan ez.

- Atzea ta aurea

- Atzea ta aurea. Lehen ba emen zian bueltan-ta aitzen zienak, baiño nik ez nun halakoik ezautu. Nik ezautu nuneako, larogei urte bai ezautu nula, ta orduako're gure aittona zanak'e Frantziti prensa ekarri propiyo ta beste hoitako oso prensa ona zan.

- Hobia bestek baiño.

- Bai.

1.5. Sagardoa nola egiten zuten 2

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/009
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:13:12. **Bukatu**: 00:14:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
 Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Sagarra zukutzeko erabiltzen zuten makinak motor txiki bat izaten zuen. Geratzen zen patsa animalientzat gordetzen zuten eta zukua berriz zuzenean upelera. Upela egiteko gaztainondoko egurra erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Ta zenbat denboan ibiltzen ziñaten? Zenbat sagar zenbat denboan?

- Gu a... gero nik beti ezautu det /ezautut/ motorrakin txikitzen. Asko aitzen zian eskubakin erainda. Baiño nik larogei urti hontan lehen'e ezautu nun txiki-txikiya nitzaneako motorrakin, makinai motorra eantsi ta jo're itten zan, sagarra txikitzen zan.

- Ze, gasolinan motor txiki bat?

- Bai.

- Ta ze iten zun sagarra bertan sartu ta txikitu iten zun?

- Makinak, makina zan, sagarra bota zestuakin o sariakin o zerbaittekin ta beak barrun zilindruak zittun ta buelta eman ta sagarra txikitu ez du in bihar izaten, aplastatu, zukutu. Ta harek beak zukutzen zun ta hua botatzen zan, ta gero hua prensan estutzen zan.

- Ta estutu ta gero?

- Han geatzen zan patsa hua behiyantzat-o kendu.

- Ta bestia seittun kupelea?

- E? Bai, bai, hua, tolarria estutzen ai zan bezela, sagardua're upelea.

- A, bertan, direkto jutun zan?

- Direkto jutun zan.

- Ta ze upel klase, o ze egur o?

- O, ordun izaten zan jeneralen gaztaiña ordun'e, hok bezelaxe. Haitzakin'e izaten zien, baiño geneal lehen'e upelak gaztaiñakin geneal izaten zan, gazt...

- Ta zeatik dan hobia o?

- Uain, alkaziakin'e sagardo onak ateatzen zian. Nik etxian alkeziakin ezautu nittun. Baiño jeneral izaten zan hemen hotan gaztaiña izaten zan.

1.6. Sagardoa upelez aldatu behar da

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/010
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:14:53. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
 Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagardoa upel batetik bestera pasa egin behar izaten zen, patsa guztia kentzeko. Sagardoak lerma handia izaten du eta horregatik aldatu behar izaten da. Lehen leku askotan aldaketarik gabe botilaratzen omen zuten baina ez zen hain ona geratzen.

Transkripzioa

- Ta sagarra... bueno, hoi dana in ta gero zenbat denboatan eukitzen zenuen upelian? O nola izaten zan?

- A upelian zenbat denbora, gero aldein-aldein, upel batetik bestea're pasa in bihar izaten zan.

- A bai?

- Bai, sagardua bai, bestela, bestela hoi igual-igual da, person bati're, bere in bihar guztik eta bere erropetan o galtzetan itten badittu, harek sagardua alperrik galdu itten du. Beno, ejenplua jarrito dizut, hoi ez da hor jartzekua.

- Ez, ez [...].

- Ta sagarduan patsa're izaten zan sagarduai're... Sagarduai're aldein-aldein o urtian behin o bitan eo, hua kentzen bazitzaiyon, sagardua beste ontzi batea pasata hobe.

- Ta bertan, ze hondar geatzen zan o ze?

- A, bertan sagardua geatzen zan, hondarra, sagardotako baliyo ez zuna, sagarduantzat baliyo ez zuna, patsa eo hola sagardo... zea geatzen zan.

- Ta hua bota ta berriz'e...

- Hua bota, bai, hua kendu. Ta sagarduak'e nik nere denbora guztin ezautu det /ezautut/ eta sagarduak'e lerma haundiya izaten du.

- Lerma?

- Bai, lerma bai. [...] ontzi bateti bestea-ta pasatzen ai zeala-ta hoi danak lermak dia. Ta gero onduan geatzen zaiyona, lehen esan dizuten bezela, patsa ta, sagarduai're barrun patsak-eta geatu itten zaizka aurreneko zeatan, aurreneko joaldikua danian, ta haik danak han, han litro asko galtzeko izaten dittu.

- Ta ordun zenbat aldiz aldatzea upel batetik bestea?

- A, segun! Sagardua ez balinbada ondo garbitzen o zeatzen, behin o bitan o, o noiz enbotillatzeko modun etortzen zaizun o. Ta lehen leku askotan [...] in be enboteillatzen omen zittuen ta. Gure etxian gure aitta zana

hortan, sagardo zaliak zian haik ta atendittu ikearri itten ziyen.

- Ze, hillian behin o hola batetik bestea?
- A, sagarduak beak esaten zuna bezela, konparaziyoa; ilbeheretan eo sagardua garbittua balin bazeon, ilbehera... o hillian behin o biti behin o...
- Ta ilbeheran in behar izaten zan?
- Jenealian ohittura hala zan. Ze diferentziya bazun o ez zun, jenealian behintzat hortan aitzen zien.

1.7. Sagardoa upelez nola aldatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/011
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:17:20. **Bukatu**: 00:19:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Sagardoaren aldaketak egiteko lehen baldeak eta inbutuak erabiltzen zituzten. Upelaren fondoan geratzen zen kondarra garbitu behar izaten zen eta horretarako barrena sartzen ziren.

Transkripzioa

- Gero aldaketa hoiyek nola iten zenituzten? Praktikan, hain upel haundik eta batetik bestea...?

- Lehen baldaka.

- Hustu ta bete?

- Bai, bai, baldiakin. [Kaño] tubo bat jarri upel bati, baldiakin hartu ta bestiai. Barrika gaiñekua esaten zaiyona goien jarri inbutu bat bezela, eskubakin pasa.

- Nola esaten zitzaion?

- Barrika gaiñekua esaten giñokan, baiño zea zan, zea, inbutuban formakua izaten zan. Ta gaiñea lehen-lehen izaten zan zurezkua hua're.

- A bai?

- Bai. Nik ezautu nun etxian zurezkua. Zurez... egurra, badakizu zura zer dan.

- Baldia, berriz, plastikozko bat o...?

- Lehen ez zan plastikoik, burnizkua izaten zan. Baiño garaiyen bat igual izango zan hua're egurrakin biltzen zana. Garaiyen bat igual izango zan.

- Ta, orden, upelan barrun gelditzen zan hondar hua nola ateatzen zan gero?

- Ba, jenealen, upelak, hola, zuluia izaten du, ta barrua sartu ta garbittuta.

- Ate txiki hoi iriki ta barrua.

- Bai.

- Peligroik ez al zan izaten?

- Peligrua... ate txiki hoi iriki eo goia irikita, egun pare batian eukita, gasa jun arte.

- Gero sartzen ziñaten.

- Bai.

- Mutil kozkorak sartuko zian o gizonak'e bai?

- E! Hemen ni're sartzen nitzan; gaur gure semia hoitan sartzen da.

- Bai?

- Bai. Ni ez naiz sartzen, baiño gaur gure hoi sartzen da. Zuloik ttikinian'e

gizona ohittu ta maiña pixkat hartzen badu sartzen da Ez noski, zea, hainbesteko tripazarra duna-ta, baiño bai, bai, zu sartuko ziñake.

- Burua kabitzen dan tokin beste dana kabitzen omen da.
- Bai, dan-dana ez, baiño asko behintzat bai.

1.8. Sagardotegietako kanilak, basoak eta edandakoaren kontrola

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/012
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:19:24. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Lehen upeletako kanilak, txotxak, egurrezkoak izaten ziren. Oraindik sagardotegiren batean badaude horrelakoak. Basoak lehen txikiak izaten ziren. Bakoitzak zenbat edan zuen kontrolatzeko upelean markak egiten zituzten.

Transkripzioa

- Uain ikusten diot horri, zea... sagardoako txotxa esaten diot, baiño horrek ez daka txotxan antzaik...

- A, hau, hok kanilla ttikik, baiño leheno danak egurrezkuak izaten zian.

- Nolakuak izaten zian ?

- Egurrezko txiriya, bihatza bezelako txiri bat, sartu ta atera. Ta gero maillu ttiki batekin eo [anikotiakin eo] gaiñetik pixkat jo ta kitto. Leheno dana txiriya izaten zan. Ta uaiñ'e sagardotei bakar-bakarren batzutan badaude, baiño gutxitan.

- Uain dana holakua.

- Dana holakua do uain.

- Bentaja izango du zeoze.

- E?

- Zeoze izango du.

- Joiño! Hau, ba, hau itxi iten dezu ta ttak iriki itten dezu ta sagardua ez dezu alperrik galtzen ordun bezela.

- Baiño sagardua ateatzeko eran, antzeko xamar?

- Antzeko xamar. Sagardua hotan'e indarrian atatzten dezu ta han bezin ondo bai, txinpartak eta indarrian ateatzten dezu ta.

- Ta basuak uango igualak al zian lehen?

- Lehen'e, jenealian, baso haundiya ibiltzen zan, baiño sagardotegitan, han ibiltzen zan garaியian, jeneralian, baso ttikik izaten zian lehen-lehen.

- A bai?

- Hola kaleko zea hoitan-ta ikusten nittun nik baso ttikiguak; ni batzuk ezautuba no, bakar batzuk.

- Ta noiz hasi zian ba baso haundigok?

- Aspaldi hasi dia hoik, baso haundik. Hasi ziala denboa puska bat bada, denboa puska bat. Ordun'e, ordun'e... badakizu, txikik'e askotan, txikik jendiak gehiyo kontatu beharko zittun ta, sagardua merke ta, baso txikikin hor ibiliko zian ta. Baten tokin hamar eanez o, badakizu, ahal dan bezela.

- Hoy esan behar nizun, nola kontrolatzen zan bakoitzak zenbat eaten zun?

- Nik aittu izandu det /izandut/ upelian-o itten zittuela markak lapiz, zea, karolinakin o, ta "hainbeste ean dizkik horrek" ta "harek hainbeste ean

dizkik”, ta “hainbeste ean dizkik”.

- Baten bat enkargatu eoten zan ixkiñan baten?

- Bai, norbeak itten zittuela esaten zuen, ta besten batzuk nik ez dakit nola moldatzen zien, hoi're entzun izandu det.

1.9. Txiki-txikitatik sagardotegian lanean

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Zazpi urte zituenean hasi zen etxeko sagardotegian lanean, etxeetara sagardoa partitzen. Ganadua zaintzen eta baratzean ere lana egin behar izaten zuen.

Transkripzioa

- Ordun, Adunako hemen bertako sagardotegin noiz hasi ziñan zu lanian? Ze...?

- Hemengo sagardotegin lanian? Bost urte nittuneako.

- A bai?

- Ez! Garai batian ze uste dezu! Behin zazpi urte nittunako idik hartu ta gero barrika luxe batzuk izaten zan karreto barrika esaten giñokena.

- Nola esaten zenien?

- Barrika luziak izaten zian.

- Nola esaten zenien?

- Karreto barrika. Karretuan, karretuan ibiltzen zan, ta karreto barrikako gurdiya motxaxua, ta barrika luzegua jarri, ta harekin etxetaa ta batea ta bestea partitzen ibiltzen nintzan.

- Zeorri idik gobernatu ta...?

- Bai, bai, bai, ni neoni're bai, majiña bat aldiz, zea, behin zazpi urte nittuneako. Batenbatek hustutzen laguntzen bazian juten nitzan tokin, segi! Nola bizittu geala uste dezu? zuek bezela? Ze, behiñ zazpi [urtekin]... ta beatzi-hamar urte ezkeo, berriz, bakarrik igual junda, ta aide!

- Ta ze eginkizun izaten zitun mutil kozkorak sagardotegin hortaz aparte? Partitzia, sagardo partitziatz aparte bertan lanen ze...?

- A! Gero ganau pilla haundi bat'e izan itten zan, ganaduba're, sagarrak'e bildu in behar izaten zian, baratzean'e izaten zan... Lana, zu etorri baziña're ta zu bezelako hamar etorri baziñe're ordun lanik ez zan faltatzen. Mutil kozkorak lana? Bai, bai, bai, bai, bai.

1.10. Sagar mota asko zuten etxean

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren

- **Erref:** ADU-003/015
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
 Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Garai batean sagastietan aparte soroa ere bazuten. Orain dena sagasti bihurtu dute. Sagar mota asko izaten zituzten. Nonbait sagar mota on bat zegoela jakinez gero bila joaten ziren. Askotan sagarrak kanpoan erosi behar izaten zituzten. Erabiltzen zituzten sagarren izenak azaltzen dizkigu.

Transkripzioa

- Sagastik zeuenak zenittuen?
- E?
- Sagastik zeuenak?
- Ordun'e bai ta uain, berriz, askoz'e gehiyo. Uain ordun soro-ta zienak uain danak sagasti jarrita dazkat, etxe guztiya dana sagasti dakat nik jarriya.
- Lehenoz zenbat... nolako sagastiya zenekan?
- Ba... uaingo erdiya o holakon bat. Geo ganauba zenun ta, ganauba zenun garaiyan ta ordun erremeiyoik be zeak, kosetxa're in in bihar izaten zendun, ta danetako terrenoik ez zan izaten.
- Ze sagar klase izaten zan?
- Berroita hamar bat klase, uain'e aldian eongo dia /eongoiya/ gure etxian sagarrak, klasiak bai.
- Bai, lehenoz're bai berrogeita hamar klase?
- Berroita hamar ya [...], bai lehen'e gure etxian sagar klase asko ezautu det /ezautut/ nik beti. Gure etxian beti sagardotan nola aitzen zian, nere aittonak'e beti huaxe izaten omen zun kapritxua, nere aittona Ramonek'e, ta aurretik'e bai ta. "Sagar ona zeok" o klase ona izan ezkeoz, hua jun ta ekarri mentuba ta hua txertatu ta, beti [konttuba] horrekin nekatzen ibilitakuak danak.
- Ze, eskian juten zitzaion sagastiyan jabiai? "Emango al diak adar puxketa bat" o?
- A! Arbolan adar xotx bat, noski, eskian, hoixe. Beste batzutan, berriz, "jun ta hartu itzak" esanda're bai ta, baiño jenealian beti eskatu itten zitzaion. Zenbaittek adar ttiki bat, puntta moztutzia're lehen ez zun nahi izaten.
- Ez?
- Ez.
- Beti eon da holako jendia?
- Bai, beti izandu da holako jendia. Zenbaittena lehen'e ez jun. Ta ikusten baziñuzun, buillan bat igual aittuko zizun, nahiz arbola izurratu ez, holako, bi hatzan gaiñeko, bi txotx kentzen bazizkazun'e, han zabiltzala ikuste ezkeoz... Ez, beti esakatu itten zitzaion.
- Baiño urrutiaño juten al zan ba esken?
- Sagarra urdun'e sagarra erosi in bihar izaten zun askotan, ta igual, igual Tolosako sagasti [batian] sagar ona ikusiko zun, konparaziyoa, iruittuko zitzaion ta negun txertatzeko ya harea jun ta ekarri ta holaxe, holaxe.
- Ta ze klase izaten zian preziatugok ordun sagardotako?
- Jesus! Majiña bat bai.
- Hola gehientsuna ibiltzen zana zein zan?
- Gehientsuna ibiltzen dana, txalaka-ta asko ibiltzen zan, ta patzulua ta, sagar klase asko, saluatia ta, bat izaten zan hor, beste sagar txuriya esaten zaiyona ta, txalaka gorriya ta beste sagar txuri batzuk eta. Gero

sagarrak'e askotan Antzuola-makatza ordun asko izaten zan uskiya're asko izaten zan, ta Antzuola-makatzai hemen Antzuola-makatza esaten giñokan, ta Hernani aldea junda, berriz, potrokilo-sagarra esaten zitaiyon. Ta sagar bakoitzak'e zenbat leku iya hainbeste izen izaten dittu.

- Baiño hemen ingurun dana sagar klase igualak izaten zian, baten ta besten?

- Igualtsu. Gero txori-sagarra asko izaten zan. Txori-sagarretan'e bi klase behintzat bazian, haundiya ta txikiya, ta ibarbi-sagarrak eta urtebiyak eta patzuluak eta... sagar klase asko.

- Ta kanpotik ekarritakok izaten zian, urrutitik ekarritakok o?

- Ez, artian goiyaldetik pixkat, ordun ez zan izaten zeaik, kanpotik ez zan etortzen uain bezela.

1.11. Inguruko herrietako sagarrak

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/016
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:29:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Ramonen aitona sagarrak Villabonako geltokira eraman eta bagoietan Asturiasera bidaltzen omen zituen. Astigarraga eta Lezoko sagarrek zuten izen ona. Adunako sagarrak ere onak dira, batez ere eguterakoak.

Transkripzioa

- Nere aitona zana're aitzen omen zan, hemen sagarrak iñun [...] ezin, sagarrak hartu, Villabonako estaziyoa eaman, han bagoiya kargatu, ta Asturiasea bialtzen aitzen omen zan gizajua. Bai.

- Hemen sobran zeudelako sagarrak?

- Bai, bai.

- Ze sagarra hola izaten da, ez? Urtebete tope...

- Baiño hala're, hala're, ordia, ordun sagarra une batian izango zan. Gero ni ttikiya nitzanian hasi zian jendia kentzen, baiño hor goiyan'e bertan sagasti saillak ikeragarrik izango zien ta hemen'e bai, hemen'e uni hartan ikeragarri. Soruan artua ingo ez bazan'e uste det sagarra dana, dana sagarra ta gaztaiña.

- Ta sagarra problemaik ez zan izaten sagardotegitan saltzeko ta, segurua zan?

- Jenealian [...] sagarra, ta Tolosaz gorako sagarra iya ez zuen nahi izaten sagarzaliak, goikua gorriya zala ta lehorra zala ta harea juten zien Tolosaz behera o holakua aitzen zien garaiyan.

- A bai, e?

- Bai, jenealian.

- Ta nungo sagarrak zuen fama earra o hola?

- Berez, Astigarraga ta Lezo ta hoik oso sagar toki onak zian. Urnita aldiak eta're bai. Ta gure etxian'e honoko beheko egutera hoitan ikeragarri sagar onak zian

- Egutera ondon?

- Bai. Ta hemen Adunan'e hor Goiburun egutera aldi hoik ta're bai. Garai batian sagarduan premiyua atera zuna're, Astarbe Manuel, Mendiolakuak, Adunako sagarrak emanda harekin atea zun premiyua; ze... dala berrogeita hamar hirurogei urte holakon batian.

- Ta hemen sagardua iten zenuenian urrutiña nungo sagarrak ekartzen [...]?

- A, hemen ez bazan, ahal zan tokikua.

- Bizkaiaño ta hola?

- Ez, ez, nere [...] ez.

- Gipuzkoa aldetik

- Bai. Uni hartan asko izaten zan. Uain dala... uain [dauk] hamar, hoge, hogeita hamar urti hontan, jun bihar izaten da noabaitte, ta Bizkai aldetik'e Karrantza ta hortik'e ekarri izandu deu.

1.12. Sagarrondoan uzta aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/017
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:29:06. **Bukatu**: 00:30:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
 Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Sagarrondoak, normalean, urte batean asko ematen badu hurrengoan gutxi ematen du. Horren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ta sagarrana bastante irregularra izaten zan, ez? Urte baten asko ematen zun ta besten gutxi ta...

- Jenealian bai, hoi uaiñ'e hala izaten da.

- Nola izaten da?

- Uain'e urte batian asko, ta hurrunguan gutxi.

- Beti hola?

- Jeneral bai.

- Gero [azaltzen dia] gauza rarok?

- Raruak... hoi're pixkat igualtsugo jarriko litzake, sagardua... sagar asko dan garaian, zuk sulfatuakin-eo... Frantzi aldian-ta pipitta galduazi itten diye. Ta pilla asko dan garaian pipitta galduaziko balitzaiyoke erdiya o hola, harek hurrungo urtian emateko probablidade gehiyo du. Zuk urte batian gehiyegi kargatzen badezu, ta arbola zupatzan badezu..., arbola ta persona ta naturaleza ta sagarra ta danak igual-igualak die. Ta [animalik], danak igualak die. Zuk... igual-igual da, person batek ez balin badauka barrun hezetasuna, zupatu balinbaiyo aurrekuan familiyak o "lo que sea" gero hazia geatzen zailla izaten da. Hor biyak behar due heziak, sagarrak adarrak'e, ta ment... txertatzen hasten bazeate, mentuba sekua jartzen badiyozu, hezia alperrik sartuko diyozu. Nahikua esplikatu dizut, ezta?

- Bai, bai, bai.

- Ta personetan'e bat sekua balin badao, bestian hezetasuna bat'e ez du baliyo. Nik ez dakat zuri eakutsi beharrik.

1.13. Sagarrondoak nola txertatu

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/018
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:30:38. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Sagarrondoak txertatzeko abilezia eta praktika behar da. Txertaketaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Txertatzian asuntua ta, abileziya beharko zan ba hortako.
- E?
- Hortako're abileziya beharko zala.
- Bai, hoi're beti praktikakin hobia izaten da.
- Zer zan sekretua?
- A, sekretua... behintzat arbola hezia ta ona izatia bat, ta hala're beti ez da, ez zan... uain'e frakasuak ematen dittu. Uain asko itten da, sagarrai begi ttiki bat kendu, ta hua [agor] aldian-o sagarrai azalian sartu, ta lotu, ta begi harek heltzen diyo askotan.
- A bai?
- Bai.
- Lehenoz ez zenuen [...]?
- Ez, nik ez det ezautu hoi uaintxe... hogei urte hontaa arte. Akaso lehen'e izango zan.
- Zuek adaxka bat moztu ta bestiai erantsi?
- Bai, bai.
- Ta nola lotzen zenuen hua o?
- Hua, jenealian, hua izaten da erretxiña-o esaten diyena, hortako preparatuba. Ta beste batzuk lokatza, buxtiña masa inda're aitzen zianak bazian, ta haik'e batzuk geatuko zian, baiño jeneralian lan asko ematen du gaiña harek ta halakuak gehiyenak [iyarrak] asko ateatzen zian.
- Erretxiña ze, nundik ateatzen zenuen?
- Hortako saltzen duena, tokitan, hoi.
- Lehen'e saltzen zuen?
- Bai, bai, nik gure etxian lehen'e ezautu nittun hoik, erretxiña bezelakua, k propiyo hortako prapatuta. Uaiñ'e nik hor goiko mendi etxe batetik ekartzen dittut ta haik etxian itten duela esaten due, berriz, etxen preparatzen dula. Bi neskatxa soltera; ta solterak [jarri] ezkeoz zeeze prepaatu beharko due, noski. Haik aitzen dia.

1.14. Sagastiak nola zaindu

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/019
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:34:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta sorra

Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

- **Laburpena:** Sagastiak, ondo zaindu nahi bada, lan handia du. Lan horiek azaltzen dizkigu. Gero, probak egin behar dira emaitza onak lortzeko.

Transkripzioa

- Ta bestela sagastiyak bestelako lanik badu?
- Sagastiyak?
- Mantentzen ta.
- Beste gauza guzti-guztiyak bezela, itten bazaiyo, bai. Itten bazaiyo, aurren-aurrena bihar dezu sagarra aldatzeko lur ona bat, ahal bada; gero zulo ona, ta gero beste base bat ona, landare ona, zarpakin ta zaiñakin, landaria ona.
- Zarpa zeñi esaten diyozu?
- Zaiñak, guapa, zaiñak.
- Sustrai onak behar ditu?
- Bai, alde earra izaten du.
- Ta gero zaindu in behar izaten da arbola?
- Bai, bai, bai, hari're onduak garbittu-ea itten badizkazu, zenbat eta gehiyo itten diyozun, bentaja. Ta, gaiñea, adarrak'e podak ematen badizkazu, bentaja.
- Noiz podatu behar izaten da?
- Ba... ba hurrungo urtian igual hasi beharko dezu, aldatu ta hurrungo urtian, landaria, landare ona etortzen baldin bada. Harek adar batzuk gora igual ematen dittu ta hua tenaza hola hartako ibiltzen dan batzuk hartu ta batzuk moztu ta bestiak utzi ta... bere txukundu bat.
- Ta hoi urtero in behar izaten zaio?
- Urtero... bi-hiru urtetik itten badiyozu, behintzat, bentaja.
- Ta ze garaitsutan o?
- Hoi, jeneralian, batzuk esaten due udazkenian, bestiak udaran... Udaberri aldian jeneralen izaten zan hoi lehen. Bai. Beste batzuk gero hobia dala, beste batzuk batez hobia dala... Noski, batez hobena, lan gutxiyo du ta.
- Ta ilbeheran o ilgoran o noiz moztu behar izaten zan?
- Ahal dala ilbeheran aittu izandu gea. Ahal danian, e! beti ez da izaten igual. Baiño ahal dala... Lehengo ohittura [...]. Uain, diferentzia badun o ez dun, hortako in bihar izaten dia pruebak. Ta pruebak norbeak itten ez badittu, ez diputaziyotik ta ez ezer ez dakazu. Norbeak. Ta norbeak prueba hoik danak itteko, bat beste lanik be eon bihar du.
- Hoixe [...].
- Hoixe, hoixe. Ta beste lanak-eta in ezin dunak proba hoik iñez aitzeko, indar asko...

1.15. Sagastien gaitzak

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/020
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:34:33. **Bukatu:** 00:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

- **Laburpena:** Mihura kentzea garrantzitsua da erraz kontagiatzen da eta. Gaur egun sagastietan gaitza asko izaten dira. Okerrena kantzerra deitzen dutena. Lehen gutxiago izaten zen. Lehen ez ziren hainbeste botika erabiltzen. Pulgoiak ere adar guztiak jaten ditu. Garai bateko sagastiak hobeagoak ziren.

Transkripzioa

- Ta honguak-eta kentzia [lehen esan dezu] ba?

- Honguak o mihurak?

- Ze esan dezu?

- Mihura.

- A, mihura kendu behar izaten zaio?

- Joder! Biharko! txarren-txarrena huaxe do.

- A bai?

- Bai. Ta gaur onduan dana abandonatutako gauza do dana. Onduan sagasti zahar bat mihurez betia balin badakazu, zure sagasti gaztia're seittun kontagiatuko du. Mihura horren haziya txoriyak hartu, txoriya o pixti eozein pixtik, hartu ta ximorrian hua osoik itten omen du ta hua itten dun token ikuittu baten mihura etorriko zaizu.

- Ta ze iten dio ba mihurak sagarra?

- Arbola izorratu. "Chupón, es un chupón", ta txupoiak itten diyo arbola izorratu. Ta azkar, gaiñea.

- Bai, e?

- Bai. Urte gutxin barrun bihar, itto itten du mihurak dana.

- Ze hasten da, aurrena sagarrik ez ematen ta gero...?

- Bai, arbola itto. [Ez] urte batian ta bin ta, baiño zenbat hazten zaizun.

Baiño uain [baten] sagasti zaharrak ikusten dittut nik dana mihura huts-hutsakin, ta gero, gaiñea, denboakin iyartu itten dittu, gaiñea, horrek. Bai. Ta hua onduan baldin badakazu, harek sagasti gaztia ta gaiñantzekuak'e danak kontagiatuko dizkizu. Ta gaur ondoko mihura ta hoik iñok ez dittu kentzen, ta ondokuak paatu bihar izaten du.

- Ta beste amenazan bat o hola, mihuraz aparte, hola, peligrua duna sagastin?

- Uain, uain, uain kantzer o esaten diyena're asko ateatzen zaiyo. Uain sagastiyak'e dakazu, ikeragarritzko gaitzak dazka sagarrak'e.

- Kantzerra esan dezu?

- Kantzerra bezela, bai. Jo-ta azala jaten diyo, hola, kantzerrak jango baliyo bezela, azala jaten diyo, ta barrua, ta deskuidatzen basea buelta guztin igual. Ta buelta guztin jaten balin badiyo harek, harek arbola guztiya izurratzen du.

- Ta zer da ba, hongon bat o? Parasiton bat o...?

- Hongua... bai, [...] hongua, nik izena... txarko uste det esaten diyela izena.

- Hoi lehenore bazan?

- Lehenogutxi. Uain lehenog baiño gehiyo hoi're.

- Izango zian gaixotasunak eo hola.

- Bai, lehen'e, lehen'e izango zian, baiño uaintxe aiña're ez dakit ba ote zan ba.

- Izenik izaten zuen lehengok?

- Zer, gaitzan izenak? Izenak badittue, baiño nik ez dakit; hola esateko ez dakit.

- Ez zan izaten hola...?

- Ez, ez, ez. Uain'e, gaiñea, leku askotan mihura bezelako... mihura ez, beste goroldiyua bezelako txuri-txuri bat'e ateatzen zaiyo ta [erdi horittuk] jartzen dittozu ta hua're... Hoik danak garbittuko liake sulfatua botata, insektizida hoik bota ezkeoz'e majiña bat garbittuko litzake. Ta uain ez zaiye botatzen; bat, dezu lana ikeragarri kostatzen dan hoi, ta beste bat in behar dezu asko pagatu.

- Pagatu?

- Noski. Botika-hautsak o holako zea hoik, hoik garestik izaten die.

- Lehen, ordia, ez zan izango [holako botikaik]?

- Ez hoinbeste. Botikak... botikak zeoze izango zan lehen'e, baiño uain bezela aiñe botika lehen ez zan izando.

- Hola, normalian, ez zitzaion eze botako sagastiyai.

- Jenealian ez. Ta uain, uain, udaran'e behin agoztuba ezkeoz ateatzen zaiyo "pulgón" o esaten diyena, gaiñen zorriya bezelakoxe bat. Ta harek'e, berriz, jo-ta adar guztiyak jaten dittu, ta irabaziik be uzten du arbola, puntta-puntta-punttan. Ta uaindik atea gutxiña uain bi urte atea zun. Hemen izan dan kanpoko zeaik garbina, sagarrik iya bat'e [har jo... nik ez det hainbestekoik] ezautu, uain bi urte zan. Ta lehengo urte hortan, berriz, zian pixkat danak har jua, zulatuba, zikiña.

- Ta hoi lehenore bazan, beste "pulgón" o hoi?

- Nik, nik ez det uain bezela aiñe ezautu behintzat, honbeste ez det ezautu nik. Nik ez det holako zeaik lehen ezautu izandu.

- Sagasti [...]

- E?

- Garai bateko...

- Bai, bai.

1.16. Sagarrak asko garbitzen dira

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/021
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:38:56. **Bukatu**: 00:40:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
 Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Orain garbitasunari garrantzi gehiago ematen zaio. Lehen ere sagarrak garbitzen zituzten baina ez hainbeste.

Transkripzioa

-Sagardua're hobia ingo zan ordun?

-Sagarduak ordun'e oñak itten zian, baiño uaiñ'e sagarduak, sagardo onakin jendiak, uain gaiña lehen baiño iya gehiyo atenditzen du / atenditzeu/. Sagarrakin uain, garbitasuna gehiyo itten, lehen'e garbitzen zan baiño, uain gaiña, uai sagar guztiya ekarri, ta aurrena pilla batea botatzen da /botatzea/ sagar osua, ta gurian hala jarriya do goiti behera botatzen dezu /botatzezu/ ta geo han hua itxiya eoten da /eotea/ ta jo ta udakin garbitzen da /garbitzea/. Gero makina, udak eamateu goiti behera, goiti behera, goiti behera, ta makina dijuala berriz, honoko zimurra o kazkarra o ta sagarra zikiña balin badao hainbeste uda jutun da ta jo ta

dana eskubakin garbitzen da /garbitzea/ berriz ostea. Uain garbitasuna, ikeragarriya izen zaiyo sagarra e!

-Lehen ez zan garbitzen hola?

-Ez, ez, uain gaiña zikin ez zun izaten baiño ez zan hola garbitzen. Lehen'e beti sagarra garbiya bai, kanpotik orbela eo ikusten bazun ta, gure aitta zanak'e, han zakun nola [...] txiki xamarra edo lehen izaten zan asko, belarra ebaki itten zan ta belar puxkak ta hola izaten zian gero, hari garbiya ekarri bestela, bere zakubakin igual [...] zinttun.

1.17. Sagarrak ganbaran gordetzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/022
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:40:12. **Bukatu**: 00:41:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
 - Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Usteldutako sagarrak apartatu egin behar izaten ziren. Sagarrak ganbaran gordetzen zituzten.

Transkripzioa

-Ta izaten zan usteltzen zan zakuik eta?

-E?

-Hola denboa pixkaten erreparatu ez ta, jata zakuk usteldu ta...

-Bai, usteldu, baiño ustelduik ez zan hartzen ordun e, ordun apartatu itten zien ordun etxian.

-Baiño izaten zan hola galera haundik horreatik?

-Horreatikan horreatikan'e bai baiño apartatu in bihar izaten zun ta apartatu [...] gure etxian, asko esaten due /esateue/ ustelduta hobia izaten da baiño, nere aitta zanai onduan e, sagar ustelikan ez jarri e, sagarra bertuba bai, beratuba esaten zayo pixkat biuinduba.

-Baiño punttun...

-Punttun.

-Ta zein dun punttu hoy?

-Bai, beak esaten zun, sagarrak, horitzen zanian, eo ya, ya laiste usteltzen hasiko dek /hasikok/ beai antzematu bihar [...] bixtan eoten zan hua, bixtan eoten zan.

-Ta nun gordetzen zenuen sagarra? Sagarra nun, ganbaran eukitzen zenituen, behian?

-Bai, bai ganbaran, gure etxian ganbara haundiya zun ta.

-Dana harea?

-Dana harea juten zan.

-Sagarrez beteta eukiko zenuen dana?

-Bai, bai, gehiyegi askotan, jota ganbara puskatzeaiño askotan.

-Bai?

-Bai, ganbara sare [...] baiño bai. Eske uain aiña sagardo ez zan itten ordun, sagardua gutxixo itten zan, hoi'de esan bihar da.

1.18. Sagardo asko edaten zen baserrietan

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 - Baserrria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
 - Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza
 - Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena:** Garai batean, dolareak etxe askotan izaten ziren, baina ez ziren behar bezalakoak. Lehen, sagardo asko kontsumitzen zuten baserrietan. Sagardo onarekin etxeetan inor ez zen mozkortzen. Gizonek, emakumeek eta umeek edan ohi zuten.

Transkripzioa

-Tolaria eukitzia bastanteko lujua zan ordun o etxe askotan eoten zan?

-Ordun tolare izanak etxe askotan, tolare izenak etxe askotan izaten zian, uain tolariak tolariak bezela, ez nijua eze esatea.

-[...]

-Bai, ez nijua eze esatea.

-Ta, ze... ?

-Genealian, genealen lehenen tolarria izaten zan basarritan, ta nola basarritan etxeako eari guztiya sagardua izaten zan, urdun baserrian sagardua ikeragarri eaten zan, gure etxian itten zian iya Aduna guztiko sagarduak eta, eozekin, millaka litruak saldu, etxeako itten zittuen han, baserritarrak.

-Gosaldu ta afaldu ta dana sagarduakin?

-Dana sagarduakin, ta garai bat izaten gendun gaiña, eguardin soroa o noabaittea jun bihar bazan bi orduako'de erremeiyoik, botilla sagardua ez balin bagendun eamaten onik ez zan izaten.

-Ta hoi ohitturangatik o, indarra emateulako o?

-Biyak, biyak. Baiño sagardua ona, sagardua ona, iñor ez zan mozkortzen sagarduakin etxetan e, sagardo onakin.

-Ez e?

-Ez. Etxian eaten zan zean behintzat ez, joiño, ez zan [...] ean'e itten ta, lana halakua izaten zan ta, ordun'e botilla sagardo leher inda etorri ta, laiste juten zan, noski, zea, kalia oyian etzanda eoteko ez dizut esaten nik baiño ordungo zenbait aldiko beruakin ta gaiñentzekuakin ta, ez dezu ordun, sagardua etxetan asko eaten zan.

-Ta ze eaten zuen gizonezkoak eta emakumeak?

-Danak. Ta umiak'e bai.

-Baita ere?

-Baita ere. Ta umiak'e sagardo bera bera eaten bazuen, danak hazi itten zian, ta urtiak pasa'de bai, ta sagarduak, noski sagardo gaziya eo binagria balinba ez det esaten, baiño sagarduak uain dauden bezelako, sagardo bera xamar hoi, umiak eanda ta kalteik ez diye itten. Besten kontuk dia uain noski, bai, binagria o gaziya hartzen badezu /bazu/ ordun bai. Ta mosto'de mosto'de fruta eaten dezue /eatezue/ ba, hua zekin iña da

-Gaziya zeatik deitzen diyozu /deitzeyozu/ gaziya o binagria

-“Agria”.

-Txarra.

-Bai.
-Ya pasatakua?
-Pasatakua.
-Horrek onik ez diyo iñoi ingo?
-Ez.

1.19. Sagardotegiak baserriko kontua ziren

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/027
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:49:30. **Bukatu**: 00:51:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Sagardotegitik bakarrik gutxi bizi ziren. Gehienak sagardoaz gain animaliak edo soroa ere izaten zuten. Sagardoa baserriko kontua izaten zen. Abizena baino gehiago baserriko izena erabiltzen zen jendea izendatzeko.

Transkripzioa

-Ta sagardoteiaz aparte esan dezu sagardotegia zunak'e normalen batza're izaten zun ta sorua're ta gaua're bai?

-Bai, normal.

-Iñor ez zan bizi sagardotegitik?

-Gutxi izango zian, hemen Astigarra alde ta hoitan'e, ña! Sagardoteitik bakarra bizittu ziana asko ez det aitzen. Gehiyenak, dana baserritarra da hor'e berez sagardotegi hoi danak, Zapiain'e galanta baserriya baiño nik'e han behiyak ezautu nittun. Ta ez da asko izango baserritarrek o sagardozaiek, jun daneko uain, larogei urte, behiyik ez zuenik, lehenoz ez behintzat. Akaso bakarren batzuk ta harrezko, harrezko jarritako sagardozaiek, sagardo izenekoz, baiño lehen lehengo, lehen lehengo sagardo zaliak, danak baserritarrek izango zian garai batian. Akaso bakarren batzuk izango zian, baiño berez baserrikuak izango zian.

-Ta zuei ordia herrin, baserriko izenagatik deitzen zizuen o sagardoteiyanagatik, nola esaten zizuen zuri?

-Ramon ta, genealian ordun ohittura zan, Gartza, etxian izena esatekua, asko zan ohittura, Aunan'e zea "Apaintzakoz bazieztik, Apaintzakua jun dek, Torrekua jun dek, hagua jun dek" ohittura etxian izena esatekua ikearriya zan lehenoz, uain ez, uain ezta ohittura hoi.

-Apelliduagatik baiño gehiyo etxian izena.

-Bai, bai, lehen garai batian bai, hemen inguru hontan behintzat bai.

1.20. Adunako baserri eta bailarak

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren

- **Erref:** ADU-003/028
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:51:13. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Adunan 60 baserri baziren. Goiburu eta Elbarrena ziren bailara ezagunenak.

Transkripzioa

-Adunan zenbat baserri zian duela berroita hamar bat urte eo?
 -Hirurogei bat, hola kontatzen zittuela usten det /ustet/. Txikik'e asko zian, baiño bai, izango zian hirurogei bat baserri.
 -Ta bailarak nola duen izena, o auzok eta?
 -Ba, hemen genealian Goiburu ta Elbarrena izaten zan.
 -Bi hoietzek?
 -Bi hoitxek. Beste baillaraik hemen holako zeaik, hor Lardi aldia zan, esaten ziyen, bailarra Lardi hoi, baiño handik aurea, nik ez det sumatu izandu, gero herri txikiya baiño hain zan bilduba hau. Ta nik hola baillarak hemen, Lardi aldi hortantxe, hor pixkat bi hiru etxe, pixkat hauzkaldeaxo dialako, hortxe Lardi bailara. Beste bailarik ez det hola sumatu izandu. Elbarrena ta Goiburukua.

1.21. Adunan auzolanean

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/032
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:57:00. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Denbora asko pasatzen zuten auzolanean, bideak konpontzen. Garai batean Adunan zeuden bideak deskribatzen dizkigu. Auzolana bando baten bitartez jakinarazten zen. Etxe bakoitzetik bat joan behar izaten zen. Joaten ez baziren, multa. Auzolanak maiz izaten ziren.

Transkripzioa

-Ta auzolana ikeragarri ta debalde, auzolana zer dan ez dezue jakingo? Guk urtian erdiya iya bire itten ta auzolanian pasatzen gendun.
 -Bai, biriak in ber izaten zian?
 -Bai.
 -Ze, ze bide zeon ba garai baten?
 -Bat ez, baiño bat ez hua'de arreglatu in bihar izaten zendun.
 -Baiño Adunan ze, zu txikiya ziñala ze bide gutzen dezu, Adunako plazatik Andoañ aldea bezela?
 -Plazan ta harea'de bai, ta plazatik hemen gora'de bai. Nik plazaño kamiyua ezautu det /ezautut/, nun.
 -Gurdi bidia o kamiyo kamiyua?
 -Kamiyua, ta kamiyua ez zan arreglatzen hemen, baiño gurdi biriak danak arreglatu in bihar ziñuzun, bestela jota egurretan hor pixkat hasten

baziñan jo ta txikituta jartzen ziñan, ta biriak estu estu, estrata zar batzuk zien, ta mendia abittu ta honeaiñoko lokatza ta etxeti atea orduako beti.

-Ta auzolanen izaten zan hua?

-Bai, bai, auzolana bai.

-Ze izaten zan o nola?

-Hoixe, zuek gaztiak ta ondo bizi zeatenak. Auzolana izaten zan, herrin bandua o abixatu itten zun, ta halako mendin izeneako auzo honea juteko ta harea jun bihar izaten zan.

-Danek o etxe bakoitzeko bat o?

-Bai, etxe bakoitzeko bat. Ta jute ez zanai multa izaten zun.

-Bai?

-Bai.

-Ta juten zanai ardua o zagiya o zeoze ematen zitzaiyon?

-Ardo pixkat, ta ogi, beste ogi koxkor bat hua bukatzen zanian, besteik ezer ez. Ze usten dezue /ustezue/ bizi? Ez dakizue ordia nola.

-Ta zenbat auzolan izaten zian ba? Esan esan. Ze izaten zan urtian bat o hola?

-Urtian bat? Bueno, beuno, bueno, bueno, bueno, bueno... Ze! Astian bat eta, urtian ze, hogei bat igual.

-Ze holaxe, bandua...?

-Bai ba, hogei bat eun erdi pasatzeko ez zan urte guzin eze bihar!

-Ta kamiyua ta arreglatzen?

-Kamiyua ez, hoi diputaziyanak zian, gurdi biria.

-Ta ze, mutil gazte kuadrilla juntatuko ziñaten ordun?

-Ahal zana, mutil gaztiak ordun ez zan asko izaten, aittonak eo, beste batzuk berriz etxian txutik eoteko abildadeik ez zuenak igual bialtzen zun ta, harek golpeik in be hortxe ta danak harentzako buillaka ta, "halako zeatik ez dek etorri ta halako zea ez dek etorri ta" hortxe segi ahal zan bezela, errita ta builla ta zea.

-Ez zan ambiente ona eoten?

-E, batzutan bai, baiño batzutan, gero zein zendun, zein zendun onduan'de aldia izaten zendun ta.

-Ze juten zian etxeko alperrenak auzolanea?

-Ba, genealian bai, danak ez baiño halakuak asko.

-Langillek etxeako gordetzen zian?

-Bai, bai, baiño langille asko ez zan izaten, gizonen bat, aitta semen batzuk etxian balin bazian o, ze usten dezu /ustezu/, ordun'e nik ezautu det / ezautut/.

2. Aisia

2.1. Aldaketak sagardotegietan

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:03:08. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Lehen sagardotegietako upelak oraingoak baino txikiagoak ziren. Jendeak etxerako sagardoa botilatan eramaten zuen.

Transkripzioa

- [...].
- Bai.
- Nola zan ordun sagardotegi bat, uaingo itxura iguala al zuen o?
- Itxura iguala... upelak'e bazian, baiño uain aiñeko upela haundik ez zian izaten. Bai, itxura iguala zan, baiño hortik ordun dana basoka partitzen zan. Baso koxkor batzugin dana partitzen zan, ta jendiak eaten zun.
- Ez zan txotxetik eaten?
- Txotxetik ba ordun. Txotxetikan [...] hartan bai.
- Baiño basotaa zuek partitzen zenduen?
- Basuak, basuak beak hartzen zuen. Ta jendiak ordun etxeako'de, oain, konparaziyoa, ura ta ardua-ta ematen deun bezela, boteilletan seittun eateko sagardua ematen zuen. Botilla enkortxatu gabe, e!
- Beaiiek ekarrita botilla.
- Bai.
- Ta zenbaten saltzen zan ordun litrua?
- Ez dizut, ba, nik esango hoi. Ez, hortako, hortako zeaik ez dakat.

2.2. Ontziratu gabeko sagardoaren salmenta

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Lehen ez zen sagardotegi denboraldirik izaten. Sagardoa bukatzen zenean itxi egiten ziren. Batzuek urte osoan irekita izaten zuten sagardotegia. Gutxi botilaratzen zen, gehiena ontziratu gabe saltzen zuten.

Transkripzioa

- Ta, bestela, sagardotegiya noiz irikitzen zan?
- Ordun sagardoteiya uain bezela tenporada [ez zan]. Beno, parte sardoteiya irikitzen zan udaberri aldian. Hua urteberritan o hola irikitzen zan. Ta gero udarako asko saldu ta in itten zittuen, ta gero saldutzen dezunian itxi ta... Gero beste batzuk, berriz, sagardua asko itten zuenak urte guzin, konparaziyoa, eukitzen zuen, botillatikan jendiak eamaten zula. Ordun enboteillatu, uain dala larogei urte ta hoitan, berrogeita hamahiru ta hoitan, enboteillatu gutxi itten zan. "Al granel" esaten dan bezela eamaten zittuen.
- Ta gero hasi zan enboteillatzen?
- Geroa. Enboteillatze asuntu hoi, hola... lehen'e enbotillatu itten zan, baiño hola asko enbotillatzea hasi da uain dala berrogeta hamar bat urte eo hola hasi zan, hirurogeitikan beherako hontan. Baiño lehen'e enboteillatzen zan, e! Baiño uain gehiyo.
- Lehen gehiyo granelea, o beaiiek ekarritako botillakin.
- Bai, bai, lehen.

2.3. Sagardotegira bakoitzak bere janaria eramaten zuen

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/007
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Ramonen familiako sagardotegira egunero jendea joaten zen, goiz eta arratsalde. Bertan izeba batek sagardoa zerbitzatzen zuen. Normalean bakoitzak bere janaria ekartzen zuen.

Transkripzioa

- Ta zuenian jendia ze etortzen zan, gehiyena asteburutan o hola... ?
- Eunero esaten zuen. Eunero nere izeba bat, holaxe upelan onduan jarri ta kanillatik, ta basoka bihar zuenian basoka, ta boteillatan bihar zuenian boteillatan, ta holaxe saltzen zula.
- Goiz ta atsalde aitzen zan, e?
- Bai.
- Ta sukaldia, berriz, zabalik eguerdin ta illuntzen?
- Sukaldia jenealian ordun beak jana ekarrita izaten zuen.
- A bai, e?
- Bai, jeneralian, ordun bai, beak kaxuela o etxea jun ta hartu ta gabian han janda ta, hola, jenealian.
- Berotzeko eskatu ta listo.
- Bai. Jeneralian. Uain, bestelakuak izango zian, baiño ez, jeneralian beak jana ekarrita.
- Zuen sagardotegin behintzat ez zan ematen afaltzen.
- Ez, ez, ez, ez [diñe] aittu izandu.

2.4. Sagardotegietako juergak

- **Hizlaria(k):** Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-003/025
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:48:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena:** Sagardoak bertsotarako talentua ematen duela diote. Garai batean sagardotegira joan eta egunak pasatzen zituztela diote. Sagardotegietako pasadizo asko daude. Orain baino mozkorra gehiago izaten ziren lehen.

Transkripzioa

- Ta lehen esan dezu sagarduak bertsotako talentua ematen zula.
- Bai, uain'e ematen die batzuidi.
- Bai e?
- Bai, baiño ordun gehio usten det ematen zula.
- Ohitura al zan sagardotegin bertsotan aitzeko?

-Bo, hoixe zala, hala esaten zittuen behintzat, osea bertsolariya sagardotegitak ateria dala aittu izandu dut nik.

-Zuk bizi izan dezu hoi, hemengo sagardotegin, sagardo bertsolariak eta...

-Ez, ez hola ez, ez dittut hola sumatu izan asko, hemen uain'e [...] bersotan zea aitzen dia /aitzey/ baiño ez. Ta hoi lehen garai batian [...] ba aittu izandu zea, sagardotegia jun ta eunak pasatzen zittuela.

-Bai astiak'e?

-E?

-Astiak'e bai batzuk.

-Bai, ta etxeko andriak'e hor utzi etxeko andriak, hala inguruko gizon bat etorri ta bi hiru egunian etxea juten ez bazan andriak "hunuzkeo gure gizonak premi earra izango dik /izangoik/ ta muda hoitxek eman izkiatzu /emaizkiatzu/". Andriak gaiña gizonai mudak kanbiatzeko eman, hoik zian emakumiak, ikusten al dezu?

-Ta ordun zuk'e aitai [...] bertsolariyak eta ?

-Bai, bai.

-Zein, ze kontatzen zun ba, pasadizon bat eo kontatzen zun?

-Pasadizuak, nola sagardotegia sartu ta sagardo ona zan garaiyan jesus taberna, sagardotegia iñok atea ezinda ta, jo ta danak kargatu ta lurrian etzanda ta atea eziñik eta, nola ibiltzen zian ta eztakit zenbat upel, kargako sagardua'de astebetian basoka hustu omen zuen astebetian, esan dizut ba lehen sagardo ona tokatu ezkeoz, danak [...] arte.

-Ta ordun'e izango zan ba herriko mozkorra.

-A!

-Danian bezela.

-Bai, bai. Uain baiño moskor gehiyo ordun.

-Bai?

-Bai, bai. Nik esan bihar banu bai. Uain, uain moskortu, ez da itten ordun bezela.

-Lehen ze, eunero?

-Jaitan mesa nausia jetsi ta honoko Zizurkill aldi hortan'e majiña ikusten nittun ta Aunan'e bakar batzuk izaten zien. Tabernan sartu, illunabarrian atera ezin, ta kargatuta askotan besten etxea eman ta launtzen ta, ta hola ibiltzen zan aitton jendia ta asko izete zan ordun. Ni ez nitzake harrittuko etxian askotan, ordun alimentuba'de, nahita'de zenbat izango zan. Zenbat izango zan. Ta behin sartzen zianian hantxe jarri ta, ean ta ean ta ean, ez dakit, ze itten zuen nik ez dakit, ze itten zuen.

2.5. Adunako festak: oilasko jokoa eta dantza

- **Hizlaria(k):** Aburuza Etxeberria, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-006/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:58:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Adunako festetan oilasko jokoa izaten zen. Orain neskak ere ateratzen dira baina garai hartan mutilak bakarrik. Dantza-sokan neskak ere ibiltzen ziren. Soinua ere izaten zen.

Transkripzioa

- Ba dana laneko kontuk-eta galdetu dizkizut uain arte. Beste galdera klase bat in nahiko nizuke beste pixkatian. Herriko festak diala ta, Adunan festeta juten al ziñeten zuek gaztetan?
- Bai, festeta juten giñan, ta oillasko jokun ta're ateatzen giñan.
- A bai?
- Bai.
- Nola izaten zan hoi?
- Ordun denak ateatzen zian, konparaziyo batea, balin bazittun hemezortzi urte o hola, denak ateatzen zian oillasko jokun. Ta gero, konparazio batea, soldaduska pasa arte ta. Gero ni hoitazortzi urtekin ta're atea nitzan.
- A bai e?
- Bai. Baiño ordun neskak ez zian ateatzen. Uain neskak eta mutillak ateatzen dia /ateatzeia/, baiño ordun denak mutillak. Ta hala 're hemezortzi lagun-o osatzen giñan. Ta geo dantza-sokak eta iten zian ta ordun ematen zian ia neskak.
- Oillasko jokuako goizen pasatzen ziñaten eskian, etxez etxe?
- Ba bai, goizetik hasi ta herriya dena pasatzen gendun.
- Nola izaten zan hoi? soiñuakin o...?
- Ba bai, zea, filarmonika, trikitixa o... soiñu ttikiyakin. Ta soiñu haundiyakin ta're bai ibili izandu dia /izanduia/.
- Ta nola izaten zan, etxe batea allatu ta kantun iten zan o dantza o...?
- Osea, dantzatu iten zan. Bi pieza-o iten zian ta... Ordun denak baserrik izaten zian ta etxez etxe ibiltzen zian. Ta hemen'e, beno, lau bakarrik zian. Entenitzen dezu? Bi bizitzakua, besti hoi ta hau. Ta hemen besteik ez zan, entenitzen dezu /entenitzezu/?
- Ta mutil kuadrilla etorri ta dantzatu iten zenuen?
- Ta kale onduan'e kaleik ez zan ordun. Entenitzen dezu? Ta etxiak bai, ordun dexente zian, baiño kaleik bat ez.

2.6. Oilasko jokoa eta dantza-soka Adunan

- **Hizlaria(k):** Aburuza Etxeberria, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-006/028
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Oilasko jokoa nola egiten zuten azaltzen du. Jokoa egiten zuten bitartean soinu jotzen zuten. Gero, dantza-soka. Aurretik joaten zirenak ikasitakoak izaten ziren eta atzekoek, berriz, ahal zutena egiten zuten. Neskek ere dantza egiten zuten.

Transkripzioa

- Ta nola iten zenuen? oillasko jokua zer zan?
- Osea, oillaskuba, uain iten dan bezela, kaja batian lur azpin sartzen da, entenitzen dezu /entenitzezu/? Ta izaten du /izateu/ zulo ttiki bat lepua sujetatzeko. Aurrena izateu tapa bat hola atzea irikitzeke. Ta geo aurea sartze zaio, ta horreatik, buruba ez behera pasatzeko, zulo ttiki bat izaten du ta buruba gora dala eoten da /eotea/. Ta hua dantza iñez etorri ta ezpatakin lepua moztutzen zaio.

- Ze dantza izaten zan?
 - E?
 - Ze dantza iñaz?
 - Osea, soiñubakin zea, saltuan hola, saltuak, dantza iñez, zeatzen zitzaion. Ta gero harena etorri ta buelta bat ematen zitzaion, ta beai aurea beira jarri, ta ezpatakin ta kolpek tira ta moztutzen zitzaion.
 - Begik itxi gabe?
 - Bai, baiño begiya... begitan saria jartzen zan ikusten ez zana, e.
 - A bai?
 - Bai.
 - Ta asmatzen zenuen hala're, e?
 - Bai, bai. Saria izaten zan, baiño ikusten zan, entenitzen dezu? Ta trapuba jartzen zitzaion, osea, moztu bihar zunai, baiño ikusten zan. Ta batzuk kolpe batian, beste batzuk bi, beste batzuk hiru igual, ez bazun ondo apuntatzen, ta... Ta hola izaten zan.
 - Ta gero dantza-soka?
 - Gero dantza-soka.
 - Hoi nola... nola izaten zan lehen?
 - Osea, aurreko bik-eta iten zuen luzia eta bestiak, berriz, ba, salto batzuk eta. Ikasi gabiak izaten zian bestiak, ta bi burutakuak ikasik izaten zian, propiyo ikastea juten zianak. Ta gaiñentzekuak ahal zuna in ta. Ta gero, zea, neskakin izaten zan, neskak'e bildu bakoitzai bana, ta bi pieza dantza in, ta bukatzen zan. Ta geo atsaldian'e dantza-soka iten zan berriz.

2.7. Adunako festak abuztuan

- **Hizlaria(k):** Aburuza Etxeberria, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ADU-006/029
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:02:07. **Bukatu:** 01:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Adunako festak abuztuko Ama Birjinaren inguruan izaten ziren. Gauean oilasko jatea egiten zuten. Egun horietako gastua mutilek ordaindu behar izaten zuten. Udaletxeak lehenengo bi egunetako gastuak ordaintzen zituen. Festak abuztuko Ama Birjinaren inguruan izaten ziren. Ttunttuna eta filarmonika ere izaten ziren. Soltean egiten zuten dantza. Apaizak baltsean ibiltzea debekatzen zuen.

Transkripzioa

- Ta gero, osea, hala bukatzen zan dantza-soka ta oilasko jokubana. Ta gabian, zea, oilasko jatia.
 - Mutillak noski.
 - Bai. Ta gero besten batzuk'e hola, tarte jatea eo jun nahi zuenak o igual izaten zan.
 - Ondo pasako zenuen egun hartan.
 - Ta gero, izaten zan, gaiñea, oilasko joku eguneko gastuba dena in bihar izaten zun mutillak. Ta hurrungo eguneko, beno, hurrungo jaiyeko zea're, festa're, mutillak soiñuba-ta pagatu bihar izaten zuen.
 - Ordun oilasko...

- Aiuntamentubak iten zun aurreneko eguna, ta bigarrena, ta hirugarrena, ta gero jaiyeko repetiziyua mutillak iten zuen.

- Hoi nola izaten zan? tokatzen zan egunen, ze, ze, ze egunetan iten zan festa Adunan?

- Beti “quince de agosto” ta hoi tokatze zan egunian. Ta gero hiru egun segidan.

- Hamaseia ta...

- Osea, hamasei ta hamazazpi ta gero jaiya.

- “Domeka”-eo esaten zitzaion jai horri?

- Hemen “igandia” o “jaiya” esate... “domeka”ik guk ez genun esaten; “igandia” o bestela “jaiya”.

- Ta jai hartan ze iten zan ba?

- Osea, orkestina jartzen zan, o bestela... Beno, orkestina geroxego hasi zan; lehenbizigo izaten zan bertako soiñu jotzaille bat ona bazan, Rafael Bereziartua, oso ona, ta harek bakarrik jotzen zun filarmonika haundiya, ta festa harekin iten zan jaiyian. Ta bestetan, berriz, izaten zan ttunttuna, deskansoko garaiyian, ta gaiñuntzian gero filarmonika.

- Ta ordun suelton iten zenuen dantza o balsen ta’re bai?

- Ez, ez, ordun sueltuan dena. Baiño aspaldiko gauza esaten ai naiz! Konparazio batea, “cincuenta y cuatro”tik hasi ta... ta ordun zea izaten zan, dena sueltuan.

- Baltsen pekatua urdun’e.

- Bai, bai. Gaiñea, apaizak-eta ordun galazi iten zuela ta... Gaiñea, illundu arte izaten zan; illundu ezkeo ya beatzitan eo, ez dakit hamarretan bukatzen zan. Osea, illundu arte, gero bukatu iten zan festa. Ta ordun ez zan izaten gau festik eta ezerre. Baiño hasi’re garaiz, konparazio batea, bostak eo seitan eo hasita, eunez.

- Bezperak izaten zian ordun?

- Elizan?

- Bai.

- Bai.

- Bezperatatik atera ta korrika dantzaa?

- Bai, baiño bezpereta joten zan jendia, hola hamahiru bat urte arte o, handik atzea ez e. Gu’re, konparazio batea, hamahiru bat urte arte o joten giñen bezperetaa, baiño gero handik aurrea ez.

- Ordun festak atsalde guztin izaten zian.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Sagardotegien ordainak

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/030
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:52:55. **Bukatu**: 00:56:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Sagardotegian ez zegoen aseguratik. Herriari ordaintzen zitzaion sagardotegia edukitzeko eskubidea. Apaizari ere ordaintzen

zitzaion, hamarrena deiturikoa eta bulak. Udaletxean berriz sagardoaren lizentzia ordaintzen zen.

Transkripzioa

-Sagardotegiyak seguruik eo uain bezela izaten zun?
-Uain gaiña ez behintzat, baiño lehen'e herriyai patuta izaten zan e.
-Herriyai?
-Bai, bai...
-Ta hori?
-E?
-Ze patzen zan?
-O diputaziyan zean o, herri, herriyan autorizaziyua bihar izaten zendun e!
-Sardoteiya eukitzeko?
-Ta bai bai, ta sagarduana lehen garai byai patzen zitzaion e!
-Ze proportzion o hola?
-Bai deretxua.
-A bai?
-Aunan asko ez det sumatu izandu, bai, herrik baia kobratzen zittuenak, gure aitta [...]
-Noiz arte hoi zure, zuk hartu zenunian'e bai?
-Nik hartu nunian e gutxi, baiño ni gaztia nitzala bazian.
-Ta zertan patzen zitzaion, diruz o sagardotan?
-Diruz. Apaizai'e hortxe patzen zitzaion, batian bulak eta bestian ez dakit zer, ta bestian bakit zer. Apaizai'de patzen zitzaion!
-Ze, bedeinkatzea etortzeatik?
-Bedeinkatzea etortzen dana'de bai ta gero aparte bulak eta izaten zittun.
-Zer zian ba?
-Bulak, ze esango dizut ba nik, honbesteko bat urtian patzekuak eta bai bai ta, artua'de honbestea ta arto razioa'de ematen ikusi izandu, ezautu izandu det nik erremiyoik gabe, apaiza arto zaku koxkor bat arto ematen. Hoik lehengo antigualeko hamarrenak elizai ematen zitzaizkanak. Aurten'e hemen ezautuba no ni.
-Dana, apaizai danetik?
-Apeiz...
-[...] apaizai?
-Bai.
-Ta urtian bula ze izaten zan, urtian patzen zitzaion..?
-Bai.
-Inpuestoa bezela?
-Bai, bai, bai
-Ta uaintxe hartotan, uaintxe...
-Genealian, hoik genealen bula ta hoik usten det berdin, usten det garai hortan patzen zian.
-Ta ze eman behar izaten zitzaion ba?
-A, hua batzuk ahaztu iñak dazkat nik baiño, hola familiya o geixo zala familiya, etxealde, haundixoua zanai gehixo ta bestelakuai gutxixo ta hola usten det izaten zala seuru ez dizut esango. Ze usten dezu patzi hortan, lehen'e, bai bulak bai, kula, gula o holako izen bat du behintzat.
-[...] ta apaizai ordun?
-Bai.
-Beste iñoi ez behintzat?
-Gula hoik apaizai.
-Ta ayuntamientuai zea sagardua itteko lizentziya o..?
-Bai, bai, sagarduan lizentziya.

-Ta garestiya izaten al zan?
 -Zenbat esango dizut ba nik. Ordun'e patzekua dana galesti izaten da. Bai, bai garaitan ayuntamentubai sagarduana deretxua patzen ziyela bakizkit nik. Aunan ez nun ezautu, Aunan'e askotan basarritarrak eta hua're alkate eoten zan ta, aitzen nittun "ios ni hurruna batian ez ziot ba nik deretxoik ez ziot eantsiko sagardu honi" baiño easten ziyenak bazien. [...] nola esaten zittun uain huek guatzen zaizkit eta.
 -[...]
 -Bai, ze usten dezu patzi hortan.

3.2. Gurdia edukitzeagatik herriari ordaindu behar

- **Hizlaria(k)**: Zabala Mendizabal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-003/031
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:56:14. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Gurdia edukitzeagatik ere herriari ordaindu egin behar izaten zitzaion.

Transkripzioa

-Patzi hortan, ze.
 -Lehenore ordun dirua ez zala errex iten uaintxe bezela, uain bezela?
 -Ez, ez.
 -Uaindik zaillo?
 -Bai. Lehen'e gurdiyana'de patze gendun.
 -Zer zan hoi?
 -Gurdiyan patentat herriyai.
 -Gurdiya eukitzeatik?
 -Bai!
 -Hoi're bai?
 -Hoi'de bai. Ta aurren aurrena kurpilla, llantak izaten zian ta azkena eantsi ziyen llanta harek kanbiyua asko puskatzen zula ta hari gehiyo ta gomazkua jartzen bazan gutxiyo. Ikusten al dezu, patzi hortan.
 -Saldia eukitzeatik ez zan patzen ez?
 -Ez dakit, igual, igual'e patu ingo zan, lehen'e patzi hoi.

4. Familia eta harremanak

4.1. Zizurkilera jai arratsaldeetan

- **Hizlaria(k)**: Aburuza Etxeberria, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ADU-006/030
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 01:05:40. **Bukatu**: 01:08:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Aisia » Taberna giroa

- **Laburpena:** Adunan bi taberna zeuden, baina garai haietan ez zegoen tabernarako ohiturarik. Festetan eta horrelakotan joaten ziren tabernara. Igandetan Pasusenera joaten ziren, Zizurkilgo Elbarrena auzoan dagoen tabernara. Beranduago Hernanira edo Tolosara ere joaten ziren.

Transkripzioa

- Ta ordun, uain bezela, tabernatan-ta ibiltzen al ziñaten?
- Ordun bi taberna bazian Adunan, baiño ez zan tabernako ohitturik. Pelotan eo... A, festetakuan bai, festetan tabernata juten zan jendia. Baiño, bestela, taberna uain bezela-ta ez zan ohitturik.
- Festetan bakarrik sartzen ziñaten taberna zuek?
- Beno, Adunaa´re ez giñan juten e, bestela. Zeatik eze elizaa´re Sorabilla juten giñan. Ta jaitan-o hola, berriz, hasi giñan Pasusenian o zean, Zizurkilko Elbarrena barriyuan, soiñuba jotzen zuen jaiyian-ta ta´re, ta horrea ta. Ta, gañuntzian, festak nun zian, harea: Sanixteban ta Sorabilla ta Billabona ta Andoain ta... dena hola inguruko festeta, Astiasu ta. Zizurkillea ez genun ohitturik, Zizurkillen ta Adunan denboa berian izaten baitia.
- Baiño jai atsaldetan bai Zizurkillea?
- Ez, ez, Zizurkillea ez.
- Jai atsaldetako soiñua ez, Elbarrena?
- A, harea bai.
- Fama zuen haiek, ezta?
- E?
- Jai atsaldetako soiñu-jotze haiek fama zuela Zizurkillen.
- Parte izaten zan udazkenetik hasi ta negun, ta ordun harea biltzen giñan denak, hemen inguruko jendia ta. Ta behin gero ezkeo, berriz, ba, Hernani ta. Gazte... gaztetan juten giñan horrea, soldaduska arte o, baiño gero Hernania ta, o Tolosa. Hoitan iten zan, osea, negun-ta´re jendia, inguru herri guztik biltzen zian Tolosa. Ta hemen behe aldekuak, berriz, Hernania, o Ollolume. Ta horrea juten giñen.
- Han ibiliko ziñaten neskei beira, ez? Aber ya ezkontzeko planak inda ta...
- Beira baiño dantzaa junda ta... dantzan ibili.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Adunako Ahizpea baserrian jaioa (ADU-001/001)

Adunako Ahizpea baserrian jaio zen; ingurua deskribatzen du. Bernardak alde egin ondoren taberna egon zen baserri hartan eta bertako gurasoak hil zirenean semeak geratu ziren bertan taberna utzita.

2. Sagardotegira saltzen zituzten sagarrak (ADU-001/003)

Baserrian 4 behi izaten zituzten eta baratzean etxerako produktuak lantzen zituzten. Sagar ugari zuten eta sagardoa egiteko saltzen zituzten Adunako Zabala sagardotegira. Aitaren lagunak ziren Zabalakoak eta aita bertara joaten zen sagardoa egiten laguntzera. Gero bertatik eramaten zuen etxerako sagardoa.

3. Adunako eskolan maistra erdalduna (ADU-001/004)

Eskolara Adunara joan zen, baina denbora gutxian, 5 urte zituela ama hil baitzitzaion. 1931an jaio zen Bernarda eta ama hil zenetik osaba-izebek zaindu zuten. Eskolatik atera eta dotrinara joaten ziren apaizarengana. Adin ezberdinetakoak batera joaten ziren eskolara eta maistra bakarra zuten. Maistra erdalduna zen.

4. Osabarekin dantza egiteagatik kongregaziotik bota (ADU-001/005)

Apaiza gogorra zen eta belaunikatuta edo besoetan liburuak jarrita zigortzen zituen, besteak beste. Bernardak osabarekin ikasten zuen dotrina. Ahizpa batek, osabarekin lotuan dantza egin zuelako, kongregaziotik botako zutela esanez apaizaren gutuna jaso zuen. Kongregaziora joatea derrigorra zen, zinta jantzi behar izaten zuten.

5. Herriko agintaria, apaiza (ADU-001/007)

Herriko agintaria apaiza izaten zen, alkatea ere izaten zen arren. Dantza lotua egiterik ez zen izaten eta apaizari norbere iritzia emateko beldurrez egoten ziren; askok beldurrez herritik alde egiten zuten, Donostiako Hirubidera esaterako.

6. Gaixoei jauna ematera etxeetara (ADU-001/009)

Bernardaren ondorengoek ikasketa gehiago zuten eta apaizari aurre egiteko erreparo gutxiago izaten zuten. Etxeren batean inor gaixo egonez gero, apaiza bertara joaten zen jauna ematera. Akolitoa aurretik joaten zen farola eta zintzarri bat hartuta eta hura jotakoan ingurukoak belaunikatu egin behar izaten ziren.

7. Villabonara eta Tolosara igandeetan (ADU-001/011)

16 urtetik aurrera hasi ziren Villabonara jaisten; etxean lana izaten zuten eta ez zuten jolaserako astirik izaten. Villabonako arkupeetan musika egoten zen eta hara joaten ziren; inguruko herrietako jende ugari joaten zen. Tolosara trolebusean joaten ziren igande arratsaldeetan eta goizago bueltatu behar izaten zuten.

8. Adunatik Zizurkilera lotuan dantza egitera (ADU-001/016)

Adunan apaizak ez zuen uzten lotuan dantza egiten eta Zizurkilera jaitsi ohi ziren.

9. Arropak garbitzera garbitokira (ADU-001/017)

Arropak eskuz garbitzen zituzten garbitokian. Bernardaren etxeokoez bozaderatik hartzen zuten ura.

10. Orduko janzkera (ADU-001/018)

Soinekoa, blusa eta gonak janzten zituzten neskek. Jaunartzea egin zuenean Bergaratik erositako telaz egin zioten jantzia, lutozkoa, ama hil berri baitzen.

11. Adunako torloju lantegian lanean (ADU-001/021)

Adunako torloju lantegian 3 urtez lan egin zuen ezkondu aurretik. Ezkondu ondorenean baserriko lanetan ere jarraitu zuen. Etxean soroan lantzen zutena eta bakoitza ze urte sasaitan lantzen zuten azaltzen du.

12. Taloa otorduetako funtsezko jakia (ADU-001/022)

Osabak zuen errota eta amaren jaiotetxean ere bai Amezketan. Aita karroa hartuta joaten zen amaren jaiotetxera. Ogia okinari erosten zioten etxean ez baitzuten labesurik. Taloa nola egiten zen azaltzen du. Arto txikitua esnetan egosita jaten zuten.

13. Estraperloko Frantziako ogia (ADU-001/024)

Amaordeak Donostiara joaten zenean estraperloko ogia eramaten zuen etxera, Frantziakoa izaten zen.

14. Eskolatik egindako irteerak (ADU-001/028)

Eskolatik irteera Belkoainera egiten zuten. Bokadiloa eramaten zuten eta paperean biltzen zuten. Osabak papertegian lana egiten zuen eta nahiko paper izaten zuten etxean. Bernardaren senarrak egiten du irteeren aipamena.

15. Umea zela, etxeko txikiak nola zaintzen zituzten (ADU-004/003)

Txikitan, ez zuten urik etxean. Sei urte zituela, eskolan hasi zen; eta, handik etorruta, etxean lana egin behar izaten zuten: ura ekarri eta horrelakoak. Umeak ere zaindu behar izaten zituen. Umeentzako haur-oihalik ez zuten izaten. Zapiak erabiltzen zituzten eta umeak estutu egiten zituzten. Zapiak ur irakinetan egosten ziren. Zapiak zuriago geratzeko, belarretan jartzen zituzten. Lau puntako zapiak izaten ziren, goxo-goxoak, zinta batzuekin lotutakoak. Artean bera ere ume zela etxeko ume txikiagoak zaintzen zituen eta askotan eskolara joan gabe geratzen zen.

16. Adunako eskolako oroitzapenak (ADU-004/004)

Eskolan neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Zatiketak egitera ez zen iritsi. Hortik aurrera lanean hasi behar izan zuen. Adunako eskolan ume asko zeuden. Donostiako maistra erdaldun bat zuten. Eskola udaletxeko azpiko lokal batean zegoen. Sartu eta berehala Espainiako banderaren aurrean abestu behar izaten zuten. Erditan ez ziren eskolara joaten eta horregatik gutxi ikasi zuten.

17. Erdaraz eskolan entzun zuen lehen aldiz (ADU-004/005)

Etxean ez zuten ez irratirik ez telebistarik. Eskolara joan aurretik ez zuten inoiz erdaraz hitz egin. Hala ere, ez ziren kexatzen. Ez zuten gaizki pasatzen. Eskolako kontuei garrantzia gutxi ematen zitzaien. Garai hartan garrantzitsuena lana zen.

18. Eskolako kontuak; zigorrak (ADU-004/006)

Eskolan, astean egun batean, laboreak egiten irakasten zien. Eskolan zigorrak jartzen zizkieten. Ehun lerro idatzi behar izaten zituzten. Belauniko besoak zabalduta egotea izaten zen beste zigorra. Hanka mahaiari lotzen zieten.

19. Garizumako txartelak (ADU-004/007)

Garai batean garizuman txartel txiki bat jaso behar izaten zuten apaizaren eskuetatik. Hura jaso ahal izateko apaizaren galderak erantzun behar izaten zituzten. Joateko beldurrez egoten ziren. Txartelik gabe jaunartzerik ez zegoen, eta hori lotsagarritzat hartzen zen. Pixkanaka galtzen joan zen ohitura hori.

20. Apaizekin errespetu eta beldur handiko harremana zuten (ADU-004/008)

Kalean apaiza ikusiz gero gurutzea egin eta musu eman behar izaten zitzaion. Apaizarekin behin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Apaizen mende bizi ziren. Dena beldurra eta bekatua zen garai haietan. Infernuan sua zegoela kontatzen zuten. Gauzak asko aldatu dira.

21. Hilero aitormena izaten zuten (ADU-004/009)

Konfesatzera hilabetero joan behar izaten zuten. Batzuetan, Villabonara joaten ziren beste apaiz batekin konfesatzeko. Ez zuten aitortzeko bekatu gehiegirik. Penitentzia errezatzea izaten zen. Baltsean ibiliz gero kongregaziotik botatzen zituzten. Gaur, berriz, dana libre da nahiz eta Jainkoa bera izan.

22. Igande arratsaldetako planak (ADU-004/011)

Oso gutxi ateratzen ziren. Igandetan kartetan ibiltzen ziren, eskoban eta puntuan. Kartetan emakumeak ibiltzen ziren. Hemezortzi urte zituztenean, Zizurkilgo dantzara joaten hasi ziren. Bezperak eta gero kuadrillan ibiltzen ziren.

23. Festara joateko jantzi eta orrazkerak (ADU-004/012)

Gaztetan festetara joaten ziren eta dantzan zebiltzala ezagutzen zituzten mutilak. Soinua filarmonika izaten zen. Villabonan musika ere izaten zen. Dantzara soineko eta alpargatekin joaten ziren. Jantzia eta orrazkera deskribatzen ditu. Ezpainak ere pintatzen omen zituzten. Ilean dirdira ateratzeko ozpina erabiltzen zuten. Ilek izurrak nola egiten zituzten kontatzen du.

24. Gerrako oroitzapenak (ADU-004/013)

Gerra hasi zenean, sei urte zituen Maria Luisak. Soldaduak etxean lotan izan zituzten. Leihoetan koltxoak jarrita egon ziren. Gerra aurretik ez zuten haren berririk. Gauez tankeak jaisten ziren zaurituak eramanez. Bi emakumeri plazan ilea moztu zietela gogoan du. Garai tristeak izan ziren.

25. Gerra ondorengo gabeziak (ADU-004/014)

Gerra ondoren gosea iritsi zen. Taloa gora eta taloa behera ibili ziren. Trenez joaten ziren Legorretako errotara irina lortzeko.

26. Ume txiekiei ematen zitzaizkien janariak. (ADU-004/015)

Gerra ondoren bost senide ziren etxean eta jateko nola moldatzen ziren kontatzen du. Etxeko jakiak izaten zituzten. Baratxuri zopa txikitatik ematen zieten. Ahia ere egiten zuten. Ahia nola egiten zuten kontatzen du.

27. Azokara oilaskoak eta arrautzak saltzera (ADU-004/016)

Etxeko oilaskoak eta arrautzak azokan saltzen zituzten; gero sardina zaharrak eta olio erosten zituzten.

28. Ume txikiei bularra ematen zitzaien (ADU-004/017)

Ume txikiei bularra ematen zitzaien. Maria Luisaren amak bi ume batera ere hazi zituen, bularra emanez.

29. Gerra ondorengo gabeziak; janariak nola kontserbatzen zituzten (ADU-004/018)

Gerra ondoren gosea baino gehiago inbidia pasa zuten. Patatak, potajea eta taloa izaten zituzten. Ogia zen gehien nahi izaten zutena. Etxean txerria ere hiltzen zuten. Jana mantentzeko gazitu egiten zuten. Txorizoak-eta oliotan kontserbatzen zituzten. Eulietatik babesteko sare berezi batzuk erabiltzen zituzten.

30. Gerra ondorena garai tristea izan zen (ADU-004/019)

Gerra ondorengo oso garai tristea izan zen. Soldadutzako mutilen gutunen zain egoten ziren. Mutil gazte asko hil ziren.

31. Ijitoak diru eske etxeetara joaten ziren (ADU-004/020)

Gerra ondoren ijitoak eskean ibiltzen ziren. Arrantzaleak buruan saskia hartuta saltzera etortzen ziren Andoaindik. Ijitoek dirua eta ogia eskatzen zituzten.

32. Aduna inguruan ibiltzen ziren ijitoak (ADU-004/022)

Ijitoek dirua eskatzera etortzen zitzaizkien. Ijito euskaldunak ziren. Ijito haiek karroekin ibiltzen ziren eta zubi azpitan jartzen zuten kanpamendua. Jendea haien beldur izaten zen, lapurretan ibiltzen zirelako.

33. Tolosakoa euskara politena eta garbiena da (ADU-004/024)

Tolosaldeako euskara hoberena dela iruditzen zaio, politena eta garbiena.

34. Aste Santuko su berria eta ur bedeinkatua (ADU-005/008)

Larunbat Santu egunean su berria eta ur bedeinkatua ekartzen zituzten etxera elizatik. Orain gauza horiek ez dira egiten.

35. Baserriko lana gogorra, miseriz betetako bizitza (ADU-005/009)

Etxeko lanak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Baserriko lana gogorra zela dio. Bizitza miserablea zeramaten.

36. Garia nola jarri eta biltzen zuten (ADU-005/011)

Gariak lana handia zuen. Lan haiek azaltzen ditu. Garia kentzerakoan aza jartzen zuten. Garia jotzeko beroa behar izaten zen. Garia jotzeko lastoa erabiltzen zen. Oraingo gazteek ez dakite hura zer zen.

37. Behiak mendira eramaten (ADU-005/012)

Behiak mendira eramaten zituen eta hainbat arazo izaten zituen. Gaur egun gauzak asko aldatu dira, zeruan bizi gara.

38. Arropak erreka losan garbitzen zituzten (ADU-005/013)

Gurasoen bizimodua lana besterik ez zen. Orain hainbat tresna ditugu etxean laguntzeko. Garai batean arropak nola garbitzen zituzten kontatzen du, erreka joanda.

39. Soldaduak etxean eta hildakoak inguruko etxeetan (ADU-005/014)

Etxean soldaduak izan zituztela gogoratzen du. Metrailadoreak etxean non gordetzen zituzten ez du ahaztu. Ondoko baserriko seme zaharrena orduan hil zuten. Oiloak harrapatzeko soldaduek trikimailuak erabiltzen zituzten. Beldur handia pasa zuten egun haietan.

40. Gerra ondoren fraideak eskean (ADU-005/015)

Senarraren etxean sardina zaharra erdi bana jaten omen zuten gerra ondorenean. Eskera etortzen zitzaizkien, fraideak ere bai.

41. Eroketak Adunako dendan bertan (ADU-005/018)

Esnea erosteko txartel bat erabiltzen zuten. Enkarguak ere apuntatu egiten zizkieten eta hilaren azkenean ordaindu. Denda hura Adunan bertan zegoen. Denetatik saltzen zuten.

42. Festetan ezagutzen zituzten mutilak (ADU-005/020)

Festara joaten zirenean mutilak atzetik etortzen zitzaizkien neskei. Bezperak entzun ondoren korrika Zizurkilera joaten ziren. Soineko politikak janzten zituzten.

43. Nolako arropak eta oinetakoak erabiltzen zituzten (ADU-005/022)

Garai haietako soinekoak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Alpargatak edo zapatila zuriak erabiltzen zituzten. Makillajerik ez du sekulan erabili. Gauza horiek engainatzeko besterik ez dute balio. Bada hori kontatzen duen abesti bat. Ilea nola zaintzen zuten.

44. Eliza kontuak asko aldatu dira (ADU-005/024)

Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen. Bulak zer ziren kontatzen du, hildakoen gainean jartzen zirenak. Gauzak aldatu arren Jainkoa bera dela dio. Infernua eta linboari buruz asko hitz egiten zen. Bataiatzera lehenbailehen eramaten zituzten umeak.

45. Sorabilla auzoaren aldaketak (ADU-006/002)

Lardi auzoa Aduna eta Sorabilla artean dago kokatuta. Sorabilla joateko bide hobeagoa zegoenez haranzko joera zuten. Garai batean Sorabilla herria omen zen baina orain Andoaingo auzoa da. Hamabost urte zituela inguruan fabrikak eraiki zituzten eta terreneak salduz jende asko aberastu zen.

46. Sorabillako eskolan euskaraz; Andoaínen erdaraz (ADU-006/004)

Adunako eskolako maisua erdalduna zen eta fundamentu gutxikoa. Horregatik jende asko inguruko herrietako eskoletara joaten zen. Joxe Sorabillako eskolan hasi zen bost urte zituenean eta zazpi urte zituela Andoaínera joan zen. Sorabillako maisua apaiza zen eta euskaraz erakusten zien. Andoaínen erdaraz erakusten zien eta ez zuten tutik ulertzen. Zerbaki kontuetan nahiko ondo ibiltzen zen eskolan baina letretan oso gaizki.

47. Andoaingo La Salleko eskolan (ADU-006/005)

Andoaínen La Salle Ikastetxean ibili zen. Eskolak fama ona zuen. Gaztelaniaz ez zekitenek gaizki pasa zuten. Geografia eta Historia ere ikasten zuten. Dotrina ere bai. Dotrina euskaraz zelako oso ongi zihoakion.

48. La Salleko eskolan ez zegoen berriketarik (ADU-006/006)

La Salleko eskolara inguruko herrietatik asko joaten ziren. Euskaraz bakarrik zekitenek akats izugarriak egiten zituzten baina halere ez zien burlarik egiten. Oso eskola serioa zen. Eskola pribatua zen.

49. Baserriaren egoera ekonomikoa (ADU-006/007)

Eskola ordaintzerakoan baserritarrek ez zuten arazorik baserriaren egoera ekonomikoa ona zen eta. Kalekoek gabezia gehiago pasatzen zuten. Gerra denboran berriz baserritarrek herriari produktuak entregatu behar izaten zizkion, errazionamendua zela eta. Garraioak hobetzen hasi ziren neurrian kanpotik produktuak iritsi ziren eta bertakoak merkatu egin behar izan zituzten.

50. Oso txikitatik baserrian laguntzen (ADU-006/008)

Joxe txikia zenean baserritarrek dirua lortzen zuten gauzak salduz. Familian asko baziren arazo gehiago izaten zituzten. Etxean ez zuten morroirik izan. Lau urte zituela hasi zen etxean laguntzen. Bederatzi urte zituen basoko lanetan hasi zenean. Anaia eta arreba behiekin ibiltzen ziren.

51. Basoko lanak (ADU-006/009)

Basora iristeko sei kilometro oinez egiten zituzten. Trasteak bizkarrean eramaten zituzten. Basoko lana nolakoa izaten zen azaltzen du. Botatzen zituzten arbolak haritzak izaten ziren, zuhaitza deitzen zieten.

52. Moztutako enborrak etxera gurdi gainean (ADU-006/010)

Moztutako arbolak enborrak gurdi gainean etxera eramaten zituzten, atzeko aldea arrastaka zeramatela. Txikitutako egurra ikatzerako erabiltzen zen eta enborrak berriz saldu egiten zituzten.

53. Egurra ikatza egiteko erabiltzen zuten (ADU-006/011)

Moztutako zuhaitzetatik gelditutako egurrekin ikatza egiten zen. Horretaz ikazkina arduratzen zen. Ikazkin gehienak Nafarrak izaten ziren.

54. Eskola utzi baserrian laguntzeko (ADU-006/013)

Eskola 11 urte zituenean utzi zuen eta aitari baserrian laguntzen jarraitu zuen. Arreba bat josten ibiltzen zen eta gero fabrikan lanean hasi zen. Joxe etxean gelditu zen.

55. Gaztetako hainbat lan (ADU-006/014)

Gaztetan Foru Aldundiarentzat lan egin zuen mendiak garbitzen eta pinuak aldatzen. Gero etxe berria egin zuen eta beranduago Algodoneran hasi zen. Herri lanak palaz egiten ziren, ez zegoen makinarik.

56. Andoaingo Kotoi fabrikako lanak (ADU-006/015)

Andoaingo Algodoneran haria egiten zuten. Prozesu hura azaltzen du. Kotoia 200 kiloko paketeetan etortzen zen, erabat prentsaturik. Makinak hura arrotu egiten zuen. Kotoia Kataluniatik ekartzen zuten. Hiru errelebotan lan egiten zuten.

57. Michelin lantegian erretiroa hartu arte (ADU-006/016)

Michelinen lana urteetan egin du, erretiroa hartu arte. Hango lana Kotoi fabrikakoa baino gogorragoa zen. Michelinen lana nolakoa zen azaltzen du. Bertako erreleboak Frantzia egiten zituzten modukoak ziren hasieran. Beranduago Espainiako ordutegira egokitu ziren. Michelinera motoz joaten zen.

58. Andoaingo fabrikak (ADU-006/017)

Andoainen gerra aurretik ere fabrikak bazeuden. Gerra garaian 600 pertsonak egiten zuten lana Algodoneran. Beranduago jende gutxiago zegoen lanean. Bergarako beste lantegi batek erosi zuen Algodonera.

59. Algodonerako eta Michelineko lan baldintzak (ADU-006/018)

Algodoneran emakume askok egiten zuten lan baina gizonen lan desberdina egiten zuten. Erreleboan zebiltzanean 15 minutuko etenaldia izaten zuten jateko. Michelinen norbaitek baja hartzen bazuen beste biren artean egiten zuten haren lana, bakoitzak 12 orduz lan eginez. Hura gehiago kobratzen zen. Michelinen Algodoneran baino hobeto kobratzen zen.

60. 1973ko krisialdia (ADU-006/019)

1973 urtearen inguruan krisialdia egon zen eta jendeari lantegitik ateratzen utzi zioten. Krisiaren inguruko gorabeherak azaltzen ditu. Michelinek lantegi asko zituenez haietako batean greba egiteak ez zuen arazorik suposatzen, beste lantegietatik zerbitzatu dezaketelako.

61. Hiru hilabeteko greba (ADU-006/020)

Behin hiru hilabetez greban egon ziren, 1976 urte inguruan. Soldata gehiago aldarrikatzen zuten. Greba amaitu ondoren denak kaleratu zituzten eta hurrengo egunean berriro lantegian onartu zituzten. Azkenean, soldaten % 25eko igoera lortu zuten. Grebako buru izandakoak kaleratu egin zituzten.

62. Langileen asanbladak greba garaian (ADU-006/021)

Greban zeuden bitartean lantegiko aparkalekuan egiten zituzten asanbladak. Batzuetan asanblada haiek eragozteko polizia bidaltzen zuten. Asanblada haietan batzuk besteak greba mantentzeko animatzen zituzten. Lanera joaten zirenak eskirolak ziren. Komiteko buru zena atxilotu egin zuten eta gero lantegitik bota zuten epaitegitik pasa ondoren.

63. Greba garaiko arazoak; Inquitex-eko greba (ADU-006/023)

Greba garaian beldurra pasa zuten. Guardiak jendea sakabanatzeko jo ere egiten zuten. Asanblada batzuk beste herri batzuetan bildu ziren, ezkutuan. Elizetan ere bildu izan ziren. Greba lantegiko nagusiek nahi izan zutenen bukatu zen. Inquitex lantegian ere greba egin zuten eta han ere gauzak berdintsu bukatu ziren. Greba ondoren langileak lehen baino umilago bueltatu ziren.

64. Greba garaiko arazoak (ADU-006/024)

Greba garaian askok lanera itzuli nahi zuten dirua behar zutelako. Asanbladatan jendeari eusteko eskatzen zitzaion. Baserritarrak greba garaian etxean lan egiten zuten eta kaletarrek beste tailer batzuetan orduak sartzen zituzten.

65. Adunan etxez etxe eskean (ADU-006/027)

Adunako etxeetan soinuaren truke eskean ibiltzen ziren. Dirua eta oilaskoa biltzen zuten. Gauean afaria egiten zen bildutako oilaskoekin.

66. Neskak ez zuten baserrira ezkondu nahi; orain baserriko lana erraztu da (ADU-006/031)

Gaztetan baserritarrak zirenez neska bilatzerakoan zailtasunak zituzten, neskek ez zutelako baserrira ezkondu nahi. Orain baserrietako bizimodua aldatu egin da eta lana errazagoa da. Baserrira baserrian jaiotakoak bakarrik ezkontzen ziren eta haiek ere kalea nahiago zuten. Joxeren arrebak ere ez dute baserrira ezkondu nahi izan.

67. Emakumeak puntuak lortzen zituzten umeak izateagatik (ADU-006/034)

Lehen emakumeak ezkondu ondoren gutxi joaten ziren lanera. Puntuen sistema zegoen eta hura azaltzen du. Emakumeek puntuak lortzen zituzten umeak izateagatik eta horrela lanean baino gehiago irabazten zuten. Puntuena Francok familia ugarien alde egindako lege baten araberako sistema zen. Jornala lanera joan gabe lortzen zuten. Gero puntuen sistema gutxitzen joan zen eta azkenean kendu egin zuten.

68. Inguruko herrietan euskaraz berdintsu hitz egiten dute (ADU-006/035)

Andoainen eta Aduna euskaraz berdintsu hitz egiten da. Tolosan ere ez dago diferentziarik, ezta Usurbilen ere. Nafarroa aldera aldatzen da hizkera.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com